

**5. (1535)**





## 5.1. 1535. URTEA

## 5.1.1. Joan Perez Idiakaitz-Lilikoaren kontratu eta agiriak

- 1535-V-18an, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauarengana Getariako Gartzia Goarnizo eta Zestoako Joan Perez Idiakaitz-Lilikoa hurbildu ziren. Gartzia Joan Perezi 22 anega gari maileguz hartu zizkion (anega 4 errealean), eta zorra hurrengo San Migel egunerako ordainduko zion. Lekuko Debako Migel Zelaia eta Pedro Olaskoaga, eta Debako Grazian Leizaola izan ziren (ikus [XVI. m. (35-V) 11] agiria).

- 1535-V-20an, Zestoan, Joan Perez Idiakaizkoa eta Domingo Lizarrarats elkartu ziren. Aizarnazabalgo Joan Mirubiak Joan Perezi 15 kintal burdina (ken 6 libra), 12 dukat eta auzi-gastuen 140 marai zor zizkion. Ondorioz, korrejidorearen aginduz, Joan Perez Joan Mirubiaren ondasunez jabetu zen (ikus [XVI. m. (31-II) 1] agiria).

Egun hartan, ordea, Domingo Lizarraratssek Joan Perezi Joan Mirubiaren zor osoa ordaindu zion, eta Joan Perezek Domingori ondasunei buruzko eskubide eta jabetza-agiri guztiak eman zizkion. Lekuko zes-

toar hauek izan ziren: Pedro Baltzola, Pedro Artzubiaga eta Martin Zubiaurre. Blas Artazubiaga izan zen eskribaua (ikus [XVI. m. (35-V) 13] agiria).

- 1535-V-26an, Zestoan, Joan Perez Idiakaizkoa eta Asteasuko Migel Agirre-Legarretagoikoa hargin-maisua bildu ziren Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean. Migel Liliko lurretan harrizko hormak eraikitzen ari zen, eta Joan Perezek urrezko 9 dukat eta 2 erreal ordaindu zizkion. Lehendik ere zestoarrak beste ordainketa batzuk eginak zizkion.

Migelek Joan Perezi ordainagiria eman zion, lekuko zestoar hauek aurrean zirela: Beltran Arizmendi, Joan Kamio eta Domingo Artazubiaga (Blas eskribauaren semea) (ikus [XVI. m. (35-V) 17] agiria).

- 1535-V-27an, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauarekin Zestoako Joan Perez Idiakaitz-Lilikoa eta Debako Fernando Sorazabal elkartu ziren. Joan Perezek Fernandori 16,5 dukat eta 62 marai eman zizkion. Fernandok Debako Kontzejuari 12 urterako hartutako mendien zati bati zegokion ordainketa. Aurreko urteko eta urte hartako Pazko garizumako epeari zego-

5.1. irudia. Aiako Mañarinzelai errota.



kion. Aurreko apirilaren 6an Sebastian Arriola eskribauarekin egindako agirian zehazten zen hori.

Ordainagirian lekuko zestoar hauek izan ziren: Joan Urbietta, Joan Martinez? Lilikoa eta Sebastian Artazubiaga (ikus [XVI. m. (35-V) 18] agiria).

- 1535-VI-5ean, Zestoako Lilin, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Joan Perez Idiakaitz-Lilikoa azaldu zen. 1527-VIII-1ean, Martin Zubeltzu eskribauak egindako obligazio-agiri baten bidez Errenteriako Joan Amasa pilotuak eta Martin Errenteria kapitainak Domenja Liliri 154 kintal burdina, urrezko 10 gaztelau eta dukat bat ordaindu behar zizkieten.

Domenjak zor haren zati batzuk bizi zenean jaso zituen. Bi zordunen izenean Martin Mañarinzelai apaizak 39 dukat eta 345 marai ordaindu zizkion. Joan Agirre oiartzuarrak 24 dukat ordaindu zituen, eta Aniza Makatzaga neskamearen bidez 24 dukat.

Horiez gain, Sizilian 53 dukat jasota, Domenjari Martin Lizaso zestoar zenak eman zizkion. Beraz, Domenjak, bizi zela, guztira 140 dukat eta 335 marai jaso zituen bi zordunek bidalita.

Domenja hil ondoren, San Joan Arretxeren bidez bi zordunek bidalitako 10 dukat jaso zituen Joan Perez Idiakaitz-Lilikoa oinordekoak. Egun hartan, berriz, Migel Errenteriaren bidez 17 dukat eta 40 marai jaso zituen Joan Perezek, eta horrenbestez zor osoa kitaturik geratu zen (1 dukat = 1 kintal burdina eginda).

Joan Perezek ordainagiria eman zien Joan Amasari eta Martin Errenterari. Lekuko, besteak beste, hauek izan ziren: Zestoako Joan Martinez Lilikoa, Joan Akoa eta Berriatuako Martin Aulikiz (ikus [XVI. m. (35-VI) 1] agiria).

- 1535-VI-15ean, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Joan Perez Idiakaitz-Lilikoa azaldu zen. Joan Perez Debako Joan Leizaolak 45 kintal burdina lodi, 50 libra burdina, urrezko 15 dukat eta 17 txanpon zor zizkion. Azkenaldian, or-

dea, Inkisizioak Joan Leizaolari ondasunak konfiskatu egin omen zizkion.

Ondorioz, Joan Perez Idiakaitz-Lilikoa ahalordea eman zien zestoar hauei: Joan Martinez Lilikoa apaizari eta Esteban Eztiola eta Jakobo Ipintza eskribauei. Hauek, konfiskaturiko ondasunez arduratzen zen Pedro Valeis? epailearen aurrean izapideak egingo ziztuzten zorra kobratzearren. Ahalorde-agirian lekuko Joan Ibañeta, Martin Itziar (edo Artzuriaga) eta Migel Artazubiaga zestoarrak izan ziren (ikus [XVI. m. (35-VI) 7] agiria).

- 1535-X-16an, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean hauek bildu ziren: Zestoako Joan Perez Idiakaitz-Lilikoa eta Arroako San Esteban elizako administratzaile Joan Lizarrarats. Joan Perezek ama Domenja Lili zenak testamentuan Arroako elizari agindutako 3 dukatak ordaindu zizkion Joan Lizarraratsi. Honek ordainagiria eman zion. Lekuko hiru zestoar hauek izan ziren: Domingo Lizarrarats, Pedro Akoa eta Pedro Artzubiaga (ikus [XVI. m. (35-X) 3] agiria).

- 1535-X-18an, Aizarnazabalen, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean zestoar hauek azaldu ziren: Joan Perez Idiakaitz-Lilikoa, San Joan Perez Idiakaitz-Lilikoa lizentziatua eta Lope Zelaia zurgin-maisua. Ama Domenja Lilik testamentuan agindu zuelako, seme Joan Perezek 4 dukat eman zizkion San Joan Perez anaiari, hau Aizarnako elizako administratzaile zelako.

Jarraian San Joan lizentziatuak 4 dukatak Lope Zelaiari eman zizkion, Aizarnako elizan bere zurginlanak egin zitzaizkion. Lekuko Zestoako Joan Igartza, Domingo Arrona eta Martin Ibañez Zubiaurrekoa izan ziren.

Ondoren Joan Perez Idiakaitz-Lilikoa eta Zumaiako Martin Larrabetzuk kontratua egin zuten. Honek harentzat Liliko olatxoan burdina mehetzen lan egingo zuen ekaineko San Joan eguna arte. Hilean dukata jasoko zuen soldata gisa, eta mantenua nagusiaren kontu izango zen. Joan Perezek 5 dukat aurreratu zizkion Martini. Lekuko Joan Ereño, Martin

Ibañez Zubiaurrekoa eta Joan Akoa izan ziren (ikus [XVI. m. (35-X) 4] agiria).

- 1535-X-21ean, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauarengana Joan Perez Idiakaitz-Lilikoa hurbildu zen. Ahalordea eman zien Zestoako Martin Esteban Makatzagari eta Joan Martinez Lilikoari Burgosko hirian urte hari zegozkion 60.00 maraiak eta aurreko urteetan kobratu gabe geratu zena jaso zitzaizen. Burgosko Joan Ortega de Curiel jauna zen hiriari kopuru haiek (lehenago Domenja Lilirentzat eta orduan Joan Perez semearentzat) kobratu behar zizkiona.

Ahalorde-agirian lekuko zestoar hauek izan ziren: Joan Martinez Amilibikoa eskribaua, Pedro Martinez Baltzolakoa eta Fernando Baltzola (ikus [XVI. m. (35-X) 6] agiria).

- 1535-X-27an, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean hauek elkartu ziren: Debako Olazabalen egindako baserri berriko Sebastian Elortza maizterra, honen anaia Joan Lazkano eta Zestoako Joan Perez Idiakaitz-Lilikoa nagusia.

Sebastianek Joan Perez nagusiarentzat lan egin behar zuen ikazkintzan eta beste zenbait arlotan, eta horretan laguntzeko anaia Joan Lazkanorekin tratua egin zuen.

Joan Lazkano hurrengo Domu Santu egunez hasi eta urtebetez arituko zen lanean. Anaiak hilean dukat bat ordainduko zion soldata gisa. Horrez gain mantenua eta aterpea emango zizkion. Joan Perez Idiakaitz-Lilikoa nagusiak 8 dukat aurreratu zizkion Joan Lazkanori, gero egingo zuen lanaren kontura.

Kontratu-agirian lekuko zestoar hauek izan ziren: Pedro Baltzola, Joan Arrona eta Martin Perez Artzubiagakoa (ikus [XVI. m. (35-X) 7] agiria).

- 1535-XI-24an, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean hauek azaldu ziren: Debako Fernando Zubeltzu eta Domingo Antsorregi, eta Zestoako Joan Perez Idiakaitz-Lilikoa. Joan Perezek debarrei urrezko 25 dukat maileguz eman zizkion, eta hauek zorra hurrengo abuztuko Andre Mariaren egunean ordainduko zioten. Lekuko Zestoako Fernando Olazabal, Joan Gorosarri eta Joan Arrona izan ziren (ikus [XVI. m. (35-XI) 8] agiria).

### 5.1.2. Bekolako Joan Martinez Olotzakoaren agiriak

- 1535-II-3an, Azpeitian, Pedro Gartzia Loiolakoa eskribauaren aurrean Getariako Joan Martinez

5.2. irudia. Itziarko Zubeltzuzar.



Untzetakoa eta Azpeitiko Joan Martinez Olotzagakoa kontularia elkartu ziren. Kontulariak, Zestoako Bekolara ezkondu zenean, 1.500 dukat agindu zituen dote gisa (ikus, adibidez, [XVI. m. (32-III) 4], eta *III ZESTOA XVI. MENDEAN (1251-1530)* liburuko [XVI. m. (30-V) 5] eta [XVI. m. (29-III) 2] agiriak).

Egun hartan kontulariak getariarrari 52 dukat eman zizkion, hau hartzekoduna zelako, eta, ondorioz, ordainagiria eman zion azpeitiarrari. Lehendik ere beste ordainketa batzuk egin zizkion Joan Martinez Olotzagakoak Joan Martinez Untzetakoari, Orioko Martin Saez Ondarrakoa kapitainaren bidez, esaterako. Ordainagirian lekuko hauek izan ziren: Azpeitiko Joan Martinez Enparangoa, Joan Santxez Garingoa eta Domingo Murua (ikus [XVI. m. (35-II) 1] agiria).

- 1535-V-16an, Aizarnako elizan, meza nagusian, bertako Joanes Ipintza apaizak ozen iragarri zuen Bekolako burdinola, Joan Martinez Olotzagakoa kontulariak eta emazte Maria Lopez Altzolaraskoak, errentan eman nahi zutela. Azkenaldian burdinola geldirik egon omen zen, eta urte batzuetarako maizterren batek prezio egokian hartzea nahi omen zuten.

Lekuko Martin Ondalde, Joan Urbieta eta Martin Indo zestoarrak izan ziren (ikus [XVI. m. (35-V) 8] agiria).

- 1535-V-17an, Beaingo San Lorente ermitan, Beltran Mantzizidor apaiz eta batxilerra elizkizuna ematen ari zela, ozen aldarrikatu zuen Bekolako burdinola errentan emateko asmoa zutela Joan Martinez Olotzagakoa kontulariak eta emazte Maria Lopez Altzolaraskoak. Azken urtean burdinola geldirik egon zen, maizterrik ez zegoelako. Prezio egokian eman nahi zuten burdinola urte batzuetarako.

Errentan hartu nahi zuenak burdinolaren jabeei edo Azpeitiko Martin Aranari jakinarazi behar zien. Lekuko Martin Otxoa Ermukoa, Fernando Igartza eta Joan Beltran Bedua debarrak izan ziren (ikus [XVI. m. (35-V) 10] agiria).

### 5.1.3. San Joan Perez Idiakaitz-Lilikoa lizentziatuaren agiriak

- 1535-I-13an, Zestoako Altzolarats jauregi edo dorretxean, Blas Artazubiaga eskribauarekin San Joan Perez Idiakaitz-Lilikoa lizentziatua eta emazte Maria Perez Arronakoa elkartu ziren. Azken bi hauek Aiako Urdanetako elizako patronatua berea zuten. Adierazi zuten, Urdanetako erretore Fortun Santxez Iraetakoa hil egin zen, eta haren ordezkari izan zedin Zestoako Joan Martinez Lilikoa apaiza (Domenja Lili zenaren lehengusu propioa) aurkeztuko zioten Iruñeko apezpikuari. Maria Perezen amona Ana Arretxe eta ama Juliana Gebara ere ados zeuden aurkezpen harekin.

Agirian lekuko zestoar hauek izan ziren: Sebastian Artazubiaga, San Joan Etxegarai eta Lope Ernataritz. Jarraian San Joan lizentziatuak, Maria Perezek, Ana Arretxek eta Juliana Gebarak prokuradore izendatu zituzten Zestoako Lope Ernataritz eta Domingo Urbieta, eta Aiako Migel Aginaga. Ahalordea eman zieten Iruñean apezpikutegian behar ziren izapideak egiteko (ikus [XVI. m. (35-I) 2] agiria).

- 1535-III-23an, Altzolarats jauregian, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean hauek elkartu ziren: batetik bertako San Joan Perez Idiakaitz-Lilikoa lizentziatua eta Ana Arretxe alarguna, eta, bestetik, Joan Aldalur zurgin-maisua. Joan Aldalurrek Altzolarats jauregi ondoko dolarea konpondu eta berritu egingo zuen. Zutabeak ipiniko zituen azpisubilaren ondoan eta zenbait izkina eta lekutan. Azpian harri onak ipiniko zizkien.

Oholak ere ipiniko zituen azpisubiletaraino Joan Aldalurrek. Dolarearen etxeak zeukan gela ere berrituko zuen. Dolare-etxean erreteila egingo zuen, teila lizentziatuak eta Ana Arretxek emanda. Dolare-habeari burdinazko uztaia ipiniko zien. Tresneria ona ere utziko zuen zurgin-maisuak. Dolare ondoko txabola ere konponduko zuen.

Lan haiek egiteagatik lizentziatuak eta Ana Arretxek 16 dukat ordainduko zizkieten: erdia lau egun barru,

5.3. irudia. Urdanetako Saroeberri.



eta beste erdia lanak amaitutakoan. Lizentziatuak eta Ana Arretzek beren kontura ekarriko zioten menditik behar ziren egur eta oholak dolareraino Joan Aldalurri. Lanak hurrengo ekaineko San Joan egunerako amaituta egongo ziren. Lekuko hauek izan ziren: Zestoako Domingo Arrona gaztea eta Pedro Aldalur, eta Zumaiako Domingo Garate (ikus [XVI. m. (35-III) 2] agiria).

- 1535-V-16an, Aizarnan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Altzolarats jauregiko San Joan Perez Idiakaitz-Lilikoa lizentziatua eta Sebastian Oliden bildu ziren. Lehenago Sebastianek San Joan Perezi 10 dukateko zorra egin zion Beltran Mendia eskribauaren aurrean, eta egun hartan ordaindu zion zorra. Lizentziatuak Sebastiani ordainagiria eman zion. Lekuko, besteak beste, honako hauek izan ziren: Joanes Potzueta, Joango Zelaia, San Joan Etxegarai, Martin Itziar eta Martin Legarda (ikus [XVI. m. (35-V) 6] agiria).

- 1535-V-26an, Altzolarats jauregi edo dorrean, Blas Artazubiaga eskribauarekin hauek elkartu ziren: bertako San Joan Perez Idiakaitz-Lilikoa lizentziatua eta Urdanetako Saroeberriko maizter Migel Aginaga. San Joan nagusiak eta Migel maizterrak baserriaren errentamenduari buruzko kontuak egin zituzten. Migel-ek nagusiari 52,5 dukat eta 6 txanpon zor zizkion.

Saroeberri baserrian ganadua zeukaten erdi bana: behi-aziendako 20 buru, ardi-aziendako 34 buru eta ahuntz-aziendako 31 buru. Hipotekatuta geratu ziren San Joan Perezen alde. Honek txekorren bat edo behiren bat etxerako behar zuenean, eraman ahal izango zuen Domingo Arrona zenaren eta emaztearen garaian egiten zuen prezioan. Migel Aginagak, gainera, Urdanetako seroraren zorra ordainduko zuen.

Agirian lekuko hauek izan ziren: Joan Otaegi, Domingo Artazubiaga eta Txomin Garate, Zestoako eta Zumaiako auzotarrak (ikus [XVI. m. (35-V) 15] agiria).

#### 5.1.4. Lizarrarastarren tratu eta harremanak

- 1535-I-16an, Iruñean, elizbarrutiko administratzaile eta Sant Angeloko apezpiku Rainaldo de Cancellariisek (Alexandro Cesarini kardinalak emandako ahalmenaz) Zestoako Antonio Lizarrarats benefiziaduari eman zizkion Zestoako eta Aizarnako elizetako “epistolaniak”. Lehenbizi Zestoako Kontzejuak, Zestoako eta Aizarnako elizetako patronatua berea zuelako, bi elizetako eliztarrek aukeratuta aurkeztu zioten Antonio apaiza. Lehenago Fortun Santxez Iraetakoa artzapeza hil egin zelako, hutsik zeuden bi “epistolania”, eta hutsunea beteko zuen Antonio Lizarraratsek.

Apezpikuak Domingo Urbietta izendatu zuen Antonio Lizarraratsen prokuradore. Izendapen-agiria latinez idatzi zuen Joan Ollakarizketak, eta lekukoetako bi Antso Artze apaiza eta Valerio Cantellana (apezpikua- ren senidea) izan ziren (ikus [XVI. m. (35-I) 3] agiria).

Joan Igartza, Joan Perez Areitzagakoa, Esteban Arbe, Joan Aran...? eta Domingo Etxenagusia. Hauek Zestoako Pedro Akoari maileguz 50 kintal burdina pletinaren balioa dirutan jaso zuten, eta hurrengo Pazko garizumakoan burdinak Beduako erreterian utziko zizkioten Pedrori.

Obligazio-agirian lekuko zestoar hauek izan ziren: Domingo Ezenarro, Joan Ereño eta Joan Martinez Akoakoa (edo Goikoetxekoa) (ikus [XVI. m. (35-V) 12] agiria).

- 1535-V-20an, Zestoako elizan, Blas Artazubiaga eskribauak ezkontza-kontratua idatzi zuen. Senarra Domingo Artazubiaga zen, Esteban Artazubiagaren eta Katalina Ipintzaren semea. Emaztea, berriz, Maria Lizarrarats zen, Domingo Lizarraratsen eta emazte Katalina Lizarraratsen alaba. Getariako Joan Gaintza bikarioak ezkondu zituen Zestoako elizan.

Estebanek eta emazteak ezkonberriei zenbait ondasun eman zizkieten: Zestoako hiribilduko etxea (Domingo Aia zenaren eta Joan Artsuagaren etxeen artekoa), bertako tresneria osoarekin; bertako baratztea; Aizubiko lur, sagasti eta intxaurdiak; Zestoako zubiaren inguruko konporta ondoan zeukatzen baratztea; Debako partean, Baltzolako lurren ondoan, zituzten sagasti, gaztainadi eta intxaurdia; Zestoako hiribilduko beste etxe bat harresirainoko lurrarekin; eta Errezilgo Iruesaroe baserria. Horiez gain bi markoko pisuko zilarrezko katilua eman zieten. Ondasunen herenaren eta bostenaren hobekuntza egin zieten.

Esteban Artazubiagak eta emazteak, ezkonberriei emandako ondasun guztien gozamenaren erdia bertzat gorde zuten bizialdirako. Hil baino lehen beren gozamenaren erdia ezkonberriei ematen bazieten, hauek mantenduko zituzten eta, gero hildakoan, behar

bezalako hiletak eta elizkizunak egingo zizkieten.

Estebanek eta emazteak Iruesoroko ganaduak eta etxeko ohe eta arropak erabili ahal izango zituzten gainerako seme-alabei dotea emateko. Domingo Artazubiaga semeak onartu egin zuen gurasoen dohaintza.

Domingo Lizarraratsek eta Katalina Lizarrarats emazteak alabari honako dotea agindu zioten: 200 kintal burdina pletinatan, 10 ontzako pisuko zilarrezko katilua, lau ohe berri eta arropak. 100 kintal Esteban Artazubiagari hurrengo Eguberri egunerako emango zizkioten Beduako erreterian, eta handik urtebetera beste 100 kintalak.

Esteban Artazubiagak eta emazteak beste bi alaba eta seme bat zituzten: Maria Ruiz Artazubiagakoa, Graziana Artazubiaga eta San Joan Artazubiaga (herriatik kanpo zebilena). Bi alabei 100na dukateko dotea agindu zieten, eta San Joan semeari 50 dukatekoa. Bi alabak agindutako dotearekin ados zeuden, eta beren gainerako eskubide guztiak Domingo Artazubiaga anaiari eman zizkioten.

Ezkontza legezko seme-alabarik gabe hausten baldin bazen, edo seme-alabak testamenturik egin gabe hiltzen baziren, ezkontzara eramandako ondasun bakoitza bere jatorrizko enborrera itzuliko zen. Esteban Artazubiagak eta emazteak fidatzaile hauek aurkeztu zituzten: Sebastian Artazubiaga eta Blas Artazubiaga eskribaua. Domingo Lizarraratsen eta emaztearen fidatzaileak hauek ziren: Pedro Martinez Baltzolakoa, Joan Artiga eta Blas Artazubiaga eskribaua.

Esteban Artazubiagak eta emazteak, eta Domingo Lizarraratsek eta emazteak, konpromisoa hartu zuten beren fidatzaileak obligazio hartatik onik ateratzeko. Gainera, emakumeek zin egin zuten ezkontza-kontratuak zioenari ez ziotela aurka egingo.

Kontratuan lekuko zestoar hauek izan ziren: Esteban Eztiola, Domingo Amilibia eta Jakobo Ipintza gaztea eskribauak (ikus [XVI. m. (35-V) 14] agiria).

- 1535-VI-30ean, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauarekin hauek bildu ziren: batetik Domingo Lizarrarats, eta, bestetik, Anton Aizarna eta Domingo Legarda. Domingo Lizarraratsek Zestoako Kontzejuari Hezarrozko? mendiak erosi zizkion ikatza egiteko, eta Anton Aizarna eta Domingo Legarda arduratuko ziren horretaz. Hurrengo Eguberri egunerako amaituko zuten lana, eta lehenago Antonek 14 dukat eta Domingo Legardak 8 kobratu zituzten. Karga ikatzak 3 txanpon (edo 45 sos) balioko zuen, eta egin ahala lanak amaitu arte ordainduko zien gainerakoa Domingo Lizarraratsek.

Lekuko Joan Garratza, Pedro Baltzola eta Pedro Altzolarats zestoarrak izan ziren (ikus [XVI. m. (35-VI) 9] agiria).

- 1535-IX-6an, Arroan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Zestoako Domingo Lizarraras eta Arroako Joan Errementari azaldu ziren. Domingok eta Joaneke egun hartara arteko harremanen kontuak egin zituzten, eta arroarrak zestoarrari 28 kintal burdina eta 3,5 dukat zor zizkiola atera zen. Domingok eskatutakoan ordainduko zion Joaneke zorra. Lekuko hauek izan ziren: Zestoako Klemente Aisoro eta Pedro Ausoroetxea, eta Debako Martin Otxoa Ermukoa (ikus [XVI. m. (35-IX) 3] agiria).

- 1535-IX-10an, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Domingo Lizarrarats eta Joan Bengoetxea zestoarrak elkartu ziren. Joaneke Domingori 24 kintal burdina pletinak balio zuena dirutan maileguz hartu zion, eta zorra hurrengo inauteri egunean ordainduko zion burdinak Beduako errenterian utzita. Lekuko zestoar hauek izan ziren: Pedro Artazubiaga, Domingo Artazubiaga eta San Joan Amezketa (ikus [XVI. m. (35-IX) 6] agiria).

- 1535-IX-14an, Zestoako errebalean, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean bi zestoar azaldu ziren: Domingo Lizarrarats eta Joan Urbietta. Auzia zuten Zestoako Martin Indorekin, eta ahalordea eman zieten Gipuzkoako korrejimenduko eta Valladolidko Kantzularitzako zenbait prokuradoreri. Gipuzkoako



5.4. irudia. Zestoako Lizarrarats.

prokuradoreak hauek ziren: Jeronimo Atxaga, Pedro Zabala eta beste lau. Valladolidkoak, berriz, hauek: Joan Lopez Arrietakoa, Joan Otxoa Urkizukoa eta beste bost.

Ahalorde-agirian lekuko zestoar hauek izan ziren: Joan Ezenarro, Pedro Akoa eta Pedro Artazubiaga (ikus [XVI. m. (35-IX) 7] agiria).

- 1535-XI-8an, Aizarnan, Blas Artazubiaga eskribauarekin hauek elkartu ziren: batetik, Zestoako Domingo Lizarrarats, eta, bestetik, Errezilgo Joan Erkizia eta Joan Lopez Ibarbiakoa, eta Jakobo Urteaga eta Esteban Zuazketa. Azken bi bikoteek Domingori ikatza egingo zioten Errezilgo Galleku saroiko mendietan. Joan Erkiziak eta Joan Lopezek ikatzen erdia egingo zuten, eta beste biek beste erdia. Ikatzen erdia hurrengo urteko San Joan egunerako eginda egongo



5.5. irudia. Errezilgo udaletxea.

zen, eta beste erdia hurrengo urteko San Migel egunerako. Karga ikatzaren prezioa 3 txanpon eta 3 sosekoa izango zen.

Domingo Lizarraratsek 24 dukat (6 dukat pertsona bakoitzari) aurreratu zizkien egingo zuten lanagatik, eta gainerakoa lanak amaitutakoan emango zien. Lekuko zestoar hauek izan ziren: Martin Indo, Joan Artiga eta Joan Bengoetxea (ikus [XVI. m. (35-XI) 3] agiria).

- 1535-XII-8an, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Errezilgo Joan Perez Basabekoa errementaria eta Zestoako Antonio Lizarrarats apaiza azaldu ziren. Zestoarrak errezildarrari 50.000 iltze motz (“estoperol” motakoak) erosi zizkion, mila iltzek 14 librako pisua izanik. “Tellado” izeneko iltze motatik 25.000 ale ere erosi zizkion, mila iltzek 28

libra osatzen zutela. Azkenik, 25.000 iltze “tellado” erdiko motakoak erosi zizkion, mila iltzek 16 librako pisua izanik.

Iltze guztiak, zergak ordainduta, errezildarrak Zestoan martxoaren erdi alderako hornituko zituen. “Tellado” motako mila iltzeren prezioa dukat batekoa zen, eta beste bi iltze motetako mila iltzek dukat erdia balioko zuten. Antonio Lizarraratsek Joani 30 dukat aurreratu zizkion, eta gainerakoa iltzeak jasotakoan edo Joan Perezek eskatutakoan ordainduko zuen. Lekuko Joan Urbietta, Joan Otaegi eta Anton Gorosarri zestoarrak izan ziren (ikus [XVI. m. (35-XII) 3] agiria).

### 5.1.5. Aizarnazabalgo Mirubikoen tratu eta agiriak

- 1535-IV-3an, Zestoan, Zarauzko erroldako Joan Martinez Amilibikoa eskribauaren aurrean, Aizarnazabalgo Joan Mirubiak obligazio-agiria eman zion Zestoako Pedro Martinez Baltzolakoari. Pedrok Joani mandar beltza saldu zion, eta honek hari ordainetan hurrengo martxoko Andre Mariaren egunean Beduan 10 kintal burdina mehea (erdia barratan eta bete erdia pletinatan) emango zizkion. Lekuko Zestoako Joan Ibañeta apaiza eta Joanto Amezketa, eta Aizarnazabalgo Joan Azpiazu izan ziren.

- 1535-VI-2an, Getariako errebalean, Martin Errenterriaren etxe atarian, Otxoa Portukoa eskribauaren aurrean Joan Mirubiak Getariako Pedro Ibañez Aldamarkoa kapitainarentzat obligazio-agiria egin zuen. Joanek Pedrori 300 kintal burdina mehe, 150 dukat eta anega gari batzuetako zorra egin zion. Joanek ordainetan burdina eman zion Pedrori, eta Pedoren izenean Bartolome Txiriboga eta Domingo Arriola errementarierei ere bai. Hain zuzen errementariak burdina harekin Pedro Ibañezen *San Pedro* izeneko itsasontzirako iltzeak egingo zituzten. Horiez gain Joanek Pedrori bere mendietako egurra eta oholak eman zizkion.

Elkarren arteko harremanen kontuak eginda, azkenean Joanek Pedrori 400 kintal burdina mehe zor zizkion, eta horiez gain, bste 100 kintal burdina mehe ere

bai; izan ere, 100 kintal horiek Pedrok Joanen izenean Zestoako Domingo Lizarrarats aitari ordaindu baitzizkion. Urtebete barru ordainduko zizkion Joanekek delako 500 kintalak Oikiako ala Beduako erreterian.

Obligazio-agirian lekuko hauek izan ziren: Tomas Asu apaiza, Joan Perez Ganboakoa eskribaua eta Martin Erreteria. Eskribauak agiriaren kopia Santxa Perez Ganboakoa (Pedro Ibañez Aldamarkoaren emazteak) eskatuta atera zuen.

- 1535-IX-1ean, Zarautzen, Beltran Mendia eskribauarengana hauek hurbildu ziren: batetik, Joan Mirubia eta Aiako Martin Izeta fidatzailea, eta, bestetik, Lope Irure zarautzarra. Joanekek eta Martinek Loperi maileguz 100 kintal burdina mehearen balioa (kintala Gaztelako 14 errealean) dirutan hartu zioten, eta zorra hurrengo otsailaren amaieran ordainduko zioten, burdinak barratan Beduan utzita.

Joanekek konpromisoa hartu zuen Martin Izeta obligazio hartatik onik ateratzeko. Lekuko hauek izan ziren: Martin Ibarrola apaiza, Martin Esnal eta Sebastian Arrazubia (ikus [XVI. m. (35-IV) 1] agiria).


- 1535-IX-6an, Arroako eliz atarian, Zestoako Esteban Eztiola eskribauaren aurrean, Arroako Domin-

go Larretxe eta emazte Nafarra Larretxe azaldu ziren. Ahalordea eman zioten Elgoibarko Migel Plazakoari Joan Mirubiari 111 dukat, kutxa bat eta arreoak kobraziezakion. Kopuru hura Domingoren seme Joan Larretxe Grazia Mirubiarekin ezkondu zenean aginduz Joan Mirubiak (ikus [XVI. m. (32-II) 10] agiria). Lekuko zestoak hauek izan ziren: Pedro Akoa-Ezenarro, Gabriel Artzubiaga eta Joan Legarda.

- 1535-IX-7an, Elgoibarren, Pedro Perez Marigortakoa eskribauaren aurrean Migel Plazakoa azaldu zen. Domingo Larretxe eta emazteak ahalordea eman zioten, eta era berean Migelek ordezkoko prokuradore hauek izendatu zituen: Migel Alegria, Frantzisko Lopez Gallaistegikoa, Pedro Perez Marigortakoa (eskribauaren izen-deitura berak zituena), Joan Heredia eta Jeronimo Atxaga. Lekuko elgoibartar hauek izan ziren: Martin Galburusoro abadea, Domingo Galsoro eta Domingo Arteaga.

- 1535-X-6an, Azpeitian, Gipuzkoako korrejidore del Barco doktoarearen eta Joan Izagirre eskribauaren aurrean, Pedro Perez Marigortakoa prokuradorea azaldu zen, Domingo Larretxe eta Nafarra Larretxe senar-emazteen izenean. Joan Mirubiak 53 dukateko zorra ez zuen bere epean ordaindu, eta ondasunak exekuta zitzala eskatu zion.

5.6. irudia. Elgoibarko udaletxea.



Orduan korrejidoreak Alvaro Acuña merio nagusiari eta merioordeei agindua eman zien Joan Mirubiaren ondasunak exekuta zituzten.

- 1535-X-9an, Mirubia etxean, Blas Artazubiagarekin Domingo Iturbe merioordeak Joan Mirubiaren emazte Maria Lopez Laurgaingoak zin eginda, ondasun hauek bahitu zituen: 42 txerri (handi eta txiki), 7 behi, sagasti bat, upelak, sagardoak, burdinola, errota, mendiak, baserriak, etab. Arroako Joan Berastegi eta Zumaiaiko Martin Oliden izan ziren lekuko.

Jarraian, egun berean, Azpeitian korrejimenduko Joan Izagirre eskribauaren bidez Alvaro Acuña merio nagusiak ondasunak enkantean emateko lehen pregoia egin zuen. Azaroaren 5a arte beste bi pregoi eta ondasunen enkanteko hiru saio egin ziren. Domingo Larretzek exekutaturiko ondasunengatik erreal bat eskaini zuen.

- 1535-XI-19an, Mirubiko burdinolaren atarian, Zarauzko erroldako Joan Martinez Amilibikoa eskribauak korrejidoreak ondasunak enkantean saltzeko emandako aginduak zioena jakinarazi zion. Lekuko Joan Etxabe (Martin Etxaberen semea) eta Hernando Amilibia izan ziren.

- 1535-XII-10ean korrejidoreak epaia eman zuen. Domingo Larretxeren eskariz Joan Mirubiaren bahitutako ondasunak enkantean salduko zituzten (ikus [XVI. m. (35-IV) 1] agiria).

- 1535-VIII-6an, Zumaian, Joan Perez Elorriagakoa eskribauaren aurrean Joan Atxaga eta Katalina Txiriboga emaztea azaldu ziren. Bertan zen Martin Diaz Mirubikoa ere. Senar-emazteek obligazio-agiria eman zioten Martin Diaz, 28 dukat eta 68 marai mailleguz hartu zizkiotelako.

Diru hartatik 5.557 marai Katalina Diaz Mirubikoa zenaren (Katalina Txiribogaren amaren) hiletak eta testamentuan agindutako mezak ordaintzeko izango ziren (ikus [XVI. m. (33-XII) 1] agiria). Diruaren gainerakoa Martin Diazek Azpeitikoa Joan Otamen-

diri eta Zestoako Martin Indori ordaindu zien, senar-emazteentzat mandoa erosi zielako.

Obligazio-agirian lekuko zumaiar hauek izan ziren: Joan Fernandez Arbestaingoa, Joan Fernandez Dornutegikoa eta Domingo Errezusta.

Jarraian, eskribau eta lekuko berak, eta gainera Joan Fernandez Arbestaingoa alkatea, bertan izanik, senar-emazteek eta Txiriboga etxekeok Martin Diaz Mirubikoarekin (Katalina Diazen anaiarekin) izandako harremanen kontuak egin zituzten. Katalina Diaz Mirubikoa Katalina Txiriboga alaba izendatu zuen testamentuan oinordeko unibertsal. Era berean, Martin Diaz Mirubikoa anaiari egin zizkioten zorrak ordaintzea agindu zuen.

Martin Diaz Txiribogako etxeke hauek egin zizkioten zorrak: Errodrigo Txiribogak eta Katalina Diaz Mirubikoa emazteak (Katalina Txiribogaren gurasoek), Santxa Ruiz Txiribogakoak eta Pedro Txiribogak. Ordurako denak hilak ziren. Martin Diazek Txiriboga etxekoei ordaindutako zorrak hauek ziren:

- Joan Domingez Areitzagakoa zenari 60 kintal burdina, Errodrigok eta Katalina Diazek Pedro Fernandez Areitzagakoa eta Fernando Otsango zenei zor zizkiotelako.

- Joan Domingez Areitzagakoa zenari 1.070 marai, 60 kintalen exekuzioaren auzi-gastuengatik, Pedro Nava korrejidoreak agindutakoaren arabera.

- Joan Arbestain eskribauak egindako agiriak zioenez, 65,5 kintal burdina Errodrigo eta emaztearen zor batzuetarako.

- Zestoako Ana Arretxeri 40 kintal burdina, 14 dukat eta Gaztelako 5 erreal. Katalina Diazek eta Pedro Txiriboga semeak zor zizkioten Anari.

- Joan Egia eta Maria Gonzalez Garratzakoaren seme-alaben tutore Martin Iruña zenari 35 kintal burdina eta 31 dukat, Santxa Ruiz Txiribogakoak eta Pedro Txiribogak zor zituztelako.

- Katalina Diaz zenari 14 kintal burdina eman zizkion, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean.

- Aizarnako Pedro Egañari 30,5 dukat ordaindu zizkion, Katalina Diazen partetik.

- Katalina Diazen hartzekodun Joana Amilibiari eta beste zenbaiti 12 kintal burdina eta 7 dukat.

- Martin Narruondo maisuari eta Joan Ruiz Arteagakoari 12 dukat eta 32 txanpon, Katalina Diazek zor zizkielako.

- Sebastian Artazubiagari 10 dukat, Pedro Txiribogak hauspo batzuk zirela eta egindako zorragatik.

- Domingo Beltran zurgin zenari 3 dukat, Txiribogako burdinolan eta errotan egin zituen lanengatik.

- Joan Amilibiari eta emazteari 6 kintal burdina, Katalina Diazek testamentuan agindutakoaren arabera.

- Katalina Diaz eta seme Pedro Txiribogarentzat agiriak ateratzeagatik 3 dukat eta 12 txanpon.

Zumaiako Joan Fernandez Arbostaingoa alkateak, Katalina Txiribogak eta senar Joan Atxagak onartu egin zituzten Martin Diaz Mirubikoak aurkeztutako kontu haiek. Dena den, gastu horiez gain 1534-VI-24az gero Txiribogako burdinola eta errotan hauspoak konpontzen eta beste gai batzuetan ere gastuak egin zituen Martin Diazek, eta haien kontuak geroago garbituko zituzten (ikus [XVI. m. (35-VIII) 3] agiria).

### 5.1.6. Otxoa Martinez Beduakoak Aizarnazabalgo eliztarrentzat egindako gastuak

Joan Beltran Iraeta hil zenean, Otxoa Martinez Beduakoak Aizarnazabalgo eta Oikiako elizetako patronatua eliztarrentzat gera zedin, hauen aginduz izapideak egin eta auzietan parte hartu zuen. Gero, eliztarrek auzitara eraman zituen Otxoa Martinezek, egin-



5.7. irudia. Zestoako Txiribogaberri.

dako gastuak ordaindu ez zizkiotelako. Otxoa Martinezek lekukoen testigantzak ere aurkeztu zituen (ikus [XVI. m. (33-IX) 1] eta [XVI. m. (34-I) 1] agiriak).

- 1535-I-30ean, Azpeitian, Joan Perez Arranibarkoa prokuradoreak zioenez, Otxoa Martinez Beduakoa zestoarra hila zen, eta alargun Maria Perez Arronakoaren izenean eskea egin zion korrejidoreari, Otxoa Martinezen kontu-liburuari kopia atera ziezaiten. Egun eta leku berean Joan Perez Arranibarkoak agiriak, lekukoen testigantzak eta gastuen zerrenda aurkeztu zituen. Saiaz eta Oikiako biztanleak eta haien zinegotzi nagusi Martin Diaz Mirubikoa ez ziren auzitara azaldu, eta korrejidoreak kondenatu egin behar zituen.

- 1535-III-15ean, Donostian, korrejidoreak auzia amaitutzat jo zuen.



5.8. irudia. Zestoako Beduaundi eta erria.

- 1535-VI-2an, Tolosan, del Barco doktoreak (Gipuzkoako korrejidoreak) epaia eman zuen. Alde bakoitzak kontulari bat izendatuko zuen Otxoa Martinez zenaren gastuak aztertzeko, eta eskribauak egindako agiria korrejidoreari emango zioten. Bi kontulariak ados ez bazeuden, korrejidoreak izendatuko zuen hirugarren kontularia.

- 1535-XI-15ean, Zestoako Ibañarrietako bentan, Zarauzko errodako Joan Martinez Amilibikoa eskribauaren aurrean, Maria Perez Arronakoa alarguna azaldu zen. Hark zioenez, Otxoa Martinez Beduakoarekin hiru seme-alaba izan zituen: Migel Otxoa Beduakoa, Maria Ortiz Beduakoa eta Katalina Bedua, hirurak ere adingabeak.

Maria Perezek senar zenaren auziari jarraipena emateko, ahalordea eman zien hauei: Lantzarote Bedua koinatuari, Gipuzkoako korrejimenduko Joan Martinez Untzetakoari, Joan Perez Arranibarkoari, Joan Perez Etxanizkoari eta beste zenbaiti, eta Valladolidko Kantzelaritzako Joan Lopez Arrietakoari, Frantzisko Orori eta Joan Otxoa Urkizukoari. Lekuko hauek izan ziren: Zestoako Esteban Artazubiaga, Zumaiako Antonio Agirre eta Debako Fernando Arantza.

- 1535-XI-21ean, Aizarnazabalgo elizaren aurrean, Joan Perez Etxezarretakoa eskribauaren aurrean Lantzarote Bedua azaldu zen, eta eskribauak Joan Esnal gazteari (Saiaz eta Oikiako unibertsitateetako zinegotzi nagusiari), korrejidorearen epaiaren berri eman zion. Lantzarotek, hain zuzen, Zarauzko Beltran Mendia eskribaua izendatu zuen kontulari izan zedin. Joan Esnalek Getariako Beltran Untzeta eskribaua izendatu zuen. Lekuko Joan Mirubia eta Domingo Amilibia izan ziren.

- 1535-XI-29an, Azpeitian, korrejidoreak lehen emandako epaia eta aginduak bidali zizkien Aizarnazabal eta Oikiako eliztarrei, bederatzi eguneko epean beren kontularia izendatu eta Otxoa Martinez zenaren kontuak garbi zitzaten.

- 1535-XII-4an, Aizarnazabalgo Esnal etxean Joan Perez Etxezarretakoa eskribauak Joan Esnal gazteari (zinegotzi nagusiari) korrejidorearen epaiaren eta aginduen berri euskaraz eman zion, uler zitzan. Lekuko, Joan Esnal zaharra eta Esteban Enbil izan ziren.

- 1535-XII-7an, Azpeitian, Jeronimo Atxaga prokuradoreak Joan Esnalen izenean honako hau ja-

kinarazi zion korrejidoreari: delako Joan Esnalek ez zeukala auzi hartan aginpiderik.

- 1535-XII-9an, Azpeitian, Lantzarote Beduak korrejidoreari eskea egin zion. Aurkariak auzitara ez ziren agertu eta zigorrak ezarri behar zizkien.

- 1535-XII-17an, Azpeititik korrejidoreak beste agindu bat bidali zion Aizarnazabal eta Oikiako biztanleei. Agindu hura Joan Perez Etxezarretakoa eskribauak Oikiako Otsangon Joan Sarasolari eta Bartolome Etxaberi jakinarazi zion. Lekuko Martin Etxezarreta eta Ramus Altzolarats zumaiarrak izan ziren. Hurrengo egunean eskribau berak Joan Esnal gazteari eman zion aginduaren berri. Gauza bera egin zion Aizarnazabalgo zubiaren ondoan hainbat biztanleri.

- 1535-XII-24an, Azpeitian, Lantzarote Beduak eskaera egin zion korrejidoreari, aurkariak auzi-ihesarlitzat har zitzan (ikus [XVI. m. (35-I) 1] agiria).

### **5.1.7. Esteban Eztiola eskribauaren tratu eta harremanak**

- 1535-III-18an, Zestoako udaletxean, Blas Artazubiaga eskribaua bertan zela Kontzejua bildu zen. Bertan ziren, besteak beste, zestoar hauek: Joan Bengoetxea alkatea, Esteban Artazubiaga alkateordea, Martin Artzuriaga probestuordea (Alonso Idiakaitz probestuaren izenean), Martin Indo ermandadealkatea, Joan Artiga fiela, Pedro Akoa, Joan Arretxe, Martin Ibañez Zubiaurrekoa, Joan Pagino, Joan Kortazar, Pedro Iribarrena, Pedro Artzubiaga, Anton Arretxe, Joan Migelez Akoakoa, Joan Arano eta Pedro Martinez Baltzolakoa.

Denen aurrean Esteban Eztiola eskribaua azaldu zen, eta hark zioenez, Kontzejuak bidalita Valladolidko Kantzelaritzan ibili zen. Alonso Idiakaitz tolosarrarekin, Joan Beltran Iraetarekin eta Fortun Santxez Iraetakoa artzapezarekin Kontzejuak Zestoako elizen patronatuaz izandako auzien segimendua egin zuen, eta azkenean gutun betearazlea lortu zuen.

Han egindako gastuak eta zegozkion soldatak kobratu nahi zizkion Kontzejuari, baina hau hilabetetan luzamendutan ibili zitzaion. Dena den, egun hartan Esteban Eztiolaren kontuak aztertzeko hiru kontulari izendatu zituzten: Martin Indo, Martin Ibañez Zubiaurrekoa eta San Joan Arretxe. Zestoako Kontzejuak ahalik eta azkarren ordainduko zion Esteban Eztiolari. Lekuko Joan Gorosarri, Migel Artazubiaga eta Joan Garratza zestoarrak izan ziren (ikus [XVI. m. (35-III) 1] agiria).

- 1535-V-9an, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Esteban Eztiola aurkeztu zen. Esteban eskribauak auzia zuen Zestoako Kontzejuaren aurka Valladolidko Kantzelaritzan, eta hango zenbait prokuradoreari ahalordea eman zion. Hauek ziren prokuradoreak: Frantzisko Oro, Joan Lopez Arrietakoa, Joan Otxoa Urkizukoa, Joan Gamarra, Pedro Arriola, Joan Lazkano eta Pedro Perez del Burgo.

Ahalordean lekuko zestoar hauek izan ziren: Joan Gorosarri, Pedro Arretxe eta Migel Artazubiaga (ikus [XVI. m. (35-V) 2] agiria).

- 1535-IX-20an, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Zestoako Esteban Eztiola eskribaua eta Joanes Gorosarri elkartu ziren. Estebanek Joanesi 12 dukat ordainduko zizkion hurrengo Pazko garizumakoan, orduan zorra egin ziolako. Lekuko zestoar hauek izan ziren: Esteban Artazubiaga, Joan Artiga eta Joanes Garratza. Joanes Gorosarrik bi dukat orduan jaso zituen eta 10 geratu zitzaizkion kobratzeko (ikus [XVI. m. (35-IX) 9] agiria).

### **5.1.8. Ezkontzak: Bartolome Etxabe eta Maria Urbieta, Joan Isasti eta M<sup>a</sup> Ruiz**

- 1535-VII-4an, Aizarnan, Blas Artazubiaga eskribauak ezkontza-kontratua idatzi zuen. Emaztea Zestoako Maria Urbieta zen, Joan Urbietaren alaba. Senarra, berriz, Aizarnazabalgo Bartolome Etxabe zen. Adinez 25 urte bete gabea zelako, Martin Indo zuen zaintzaile eta administratzaile. Bertan ziren, halaber, Bartolomeren senideak, Joan Urbietaren anai-arrebak eta hartzekodunak.



5.9. irudia. Aizarnazabalgo Etxabe jauregiko armarrria.

Joan Urbietak ezkonberriei ondasun hauek eman zizkien: Urbietako etxea, errota, baserri, mendi, sagasti eta gainerako ondasunak; baita Urbietako etxeko tresneria, arreo eta upelen erdia ere. Ganadu guztiak ere haientzat izango ziren. Joan Urbietak Maria alabari herenaren eta bostenaren hobekuntza eman zion. Dena den, Joan Urbietak hiltzen zenean, ezkonberriek egingo zizkieten Aizarnako elizan ohiko hiletak eta elizkizunak.

Joan Urbietak bere bizialdian dohaintzan emandako ondasunen gozamenaren erdia beretzat izango zuen. Urbietako etxeari zegozkion zergak erdi bana ordainduko zituzten. Hiltzen zenean dena ezkonberrirentzat izango zen. Bartolome Etxabek zioenez, Joan Urbietak eta Maria Beltran Urbietak ama zenak anai-arrebei senipartekak agindu zizkieten. Gainera Joan Urbietak beste hartzekodun batzuk ere bazituen. Haien ordaintzeko Bartolome Etxabek dote gisa Urbietako etxera bere senipartea ekarriko zuen. Handik

ordainduko ziren Domingo Urbietaren, Maria Urbietaren eta Katalina Urbietaren (Joanen anai-arreben) senipartekak, eta Domingo Lizarrarats, Maria Nikolas Zabala-Lasao eta gainerako hartzekodunen zorrak.

Maria Urbietaren eta Bartolome Etxaberen arteko ezkontza legezko seme-alabarik gabe hausten bazen, edo seme-alabak testamentua egin gabe hiltzen baziren, ezkontzara ekarritako ondasun bakoitza jatorrizko enborrera itzuliko zen. Ezkontzan irabaziak izanez gero, enbor bakoitzak irabazien erdiak jasoko zituen.

Bartolomek bere seniparteko 50 dukat beretzat gordeko zituen, eta gainerakoarekin Joan Urbietaren anai-arrebei eta hartzekodunei ordainduko zieten. Bartolomek eta Maria emazteak, 25 urte bete gabeak zirelako, zin egin zuten kontratua bete egingo zutela. Martin Indok ere, Bartolomearen administratzaile gisa, onetsi egin zuen kontratua. Lekuko zestoar hauek izan ziren: Domingo Arrona, Martin Etxeberria eta Joan Ereño.

Ondoren Zestoako Joan Bengoetxea alkateari ezkontza-kontratuak zioenaren berri eman zitzaion. Alkatearen aurrean Zestoako hiru lekukok (Pedro Aurosoetxeak, Pedro Iribarrenak eta Domingo Areitzagak) zin egin zuten. Hirurek aitortu zuten, ezkontza-kontratu hura onuragarria zen Bartolome Etxaberezentzat. Lekuko zestoar hauek izan ziren: Domingo Arrona, Martin Etxeberria eta Joan Ereño (ikus [XVI. m. (35-VII) 1] agiria).

- 1535-X-31n, Aizarnan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Katalina Urbietak azaldu zen. Norbait ahalordea eman zion, lekuko zestoar hauek izanik: Joan Artiga, Joanes Potzueta eta Joan Pagino. Martin Indo izan zen agiria sinatutako bat.

Jarraian, eskribau beraren aurrean honako hauek azaldu ziren: Joan Urbietak, Domingo Urbietak, Domingo Lizarrarats, Maria Nikolas Zabala (Lasaoko etxeko alarguna) eta Maria Urbietak (Martin Argiainen emaztea). Ahalordea eman zioten Domingo Urbietari,

hain zuzen Joan Urbietaren Bartolome Etxabe suhiari Aizarnazabalgo Etxabe etxean seniparteagatik zego-kiona kobra zezan. Gero handik Joan Urbietaren hartzekodunei ordainduko zitzairen.

Ahalorde-agirian lekuko hauek izan ziren: Joanes Potzueta, Martin Etxeberria eta Joan Igartza (ikus [XVI. m. (35-X) 9] agiria).


- 1535-VIII-3an, Oikiako San Bartolome elizan, Blas Artazubiaga eskribauak ezkontza-kontratua idatzi zuen. Senarra Joan Isasti getariarra zen, Domingo Isasti zenaren eta Maria Perez Baldakoaren semea. Emaztea Zestoako Maria Ruiz Artazubiagakoa zen, Esteban Artazubiagaren eta Katalina Ipintzaren alaba. Getariako Joan Ruiz Gaintzakoa bikarioak ezkondu zituen.

Joan Isastik ezkontzara ondasun hauek ekarri zituen: talaiko etxe nagusia bere mahastiarekin, Getariako kale nagusiko etxea, Intxusetako mahastia (Domingo Mutiok zuenaren ondokoa), beste bi mahasti, sagastia, Aldamarko mahastia, Sarasagako sagastia eta elizako hilobiko eskubideak.

Esteban Artazubiagak eta emazteak Maria Ruiz alabari dote gisa hauek agindu zizkieten: urrezko 100 dukat, hiru ohe oso, zilar landuzko katilua eta Maria Ruizen jantzi eta edergarriak. 25 dukat egun hartan ordaindu zituen Esteban Artazubiagak, beste 25 dukat Andaluzian ordainduko zizkieten Joan Isastiri hurrengo 20 egunetan, eta gainerako 50 dukatak hurrengo urteko martxoko Andre Mariaren egunean.

Esteban Artazubiagak fidatzaile hauek aurkeztu zituen: Sebastian Artazubiaga, Joan Artazubiaga eta Blas Artazubiaga. Joan Isastiren fidatzaileak getariar hauek ziren: Martin Perez Mantelolakoa eta Joan Zakaio ontzi-maisua.

Ezkontza seme-alabarik gabe hausten baldin bazen, edo seme-alabak testamentua egin gabe hiltzen baziren, ezkontzara eramandako ondasun bakoitza (eta izandako irabazien erdia) jatorrizko bere enborrera itzuliko zen.



5.10. irudia. Getariako Kale Nagusia

Maria Ruiz Artazubiagakoak uko egin zien bere seniparteko eskubideei anaia Domingo Artazubiagaren alde, bere dotearekin ados zegoelako. Maria Ruiz 25 urte bete gabea izanik, bere gogoz zin egin zuen ezkontza-kontratuaren aurka ez zela joango.

Agirian lekuko hauek izan ziren: Getariako Errodrigo Gaintza batxilerra eta Joan Lopez Zarauzkoa, eta Zestoako Domingo Lizarrarats eta Jakobo Ipintza (ikus [XVI. m. (35-VIII) 2] agiria).

- 1535-XII-2an, Zestean, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Esteban Artazubiaga eta Getariako Joan Isasti suhia elkartu ziren. Lehenago, Maria Ruiz Artazubiagakoa alabaren doteagatik 25 dukat ordaindu zizkion Jon suhiari, eta egun hartan beste 25 dukat eman zizkion, 12 dobloitan eta Gaztelako 11 errealetan.

Joan Isastik ordainagiria eman zion Esteban aitagi-narrebari. Lekuko Pedro Akoa, Migel Artazubiaga eta Getariako Martin Perez Mantelolakoa izan ziren (ikus [XVI. m. (35-XII) 1] agiria).

### 5.1.9. Domingo Arronaren eta ama Ana Arretxeren agiriak

- 1535-V-16an, Aizarnan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Altzolarats jauregiko Ana Arretxe eta Domingo Aizarnatea bildu ziren. Domingok Anari lehen egindako 4 dukateko zorra ordaindu egin zion, eta honek hari ordainagiria eman zion. Lekuko zestoar hauek izan ziren: Domingo Arrona gaztea, Domingo Urbieta eta Sebastian Artazubiaga (ikus [XVI. m. (35-V) 16] agiria).

- 1535-V-26an, Zestoako Urbietan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean hauek azaldu ziren: batetik Domingo Arrona gaztea, eta, bestetik, Martin Otaegi eta Martin Ondalde. Azken biek Domingori lehenago egindako 35 kintaleko zorra ordaindu egin zioten, eta honek ordainagiria eman zien. Zorra, berez, Martin Otaegirena zen, eta Martin Ondalde obligazio hartatik aske geratu zen.

Lekuko Martin Indo, Sebastian Artazubiaga eta Joan Pagino zestoarrak izan ziren (ikus [XVI. m. (35-

V) 16] agiria).

- 1535-VI-6an, Aizarnan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Zestoako Domingo Arrona gaztea eta Errezilgo Martin Otaegi bildu ziren. Elkarren artean egun hartara arte izandako tratu eta harremanen kontuak egin eta garbitu zituzten. Ondorioz, Domingok Martini ordainagiria eman zion. Lekuko Pedro Iribarrrena, Joango Intzina eta Domingo Aranguren izan ziren (ikus [XVI. m. (35-VI) 3] agiria).

- 1535-VIII-23an, Aizarnan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Altzolarats jauregiko Ana Arretxe azaldu zen. Anak zioenez, 70 kintal burdinako zorra egin zioten lehenago honako gipuzkoar hauek: Zumaiako Andres Aginaga lizentziatu zenak; Hernaniko Joan Lopez Elduaiengoa batxilerrak, Martin Aierdik, Joan Martinez Ereñozukoak eta Lope Zubidik; Areriako Joan Martinez Legazpikoak; eta Tolosako Alberto Fernandez Errezilgoak, Sandobal Ibarrek eta Joan Otxoa Olazabalgoak.

Andres Aginaga bizi zela, 66 kintal burdina ordaindu egin zizkion Ana Arretxeri (kintal batek dukat bateko balioa izanik). Gero, Maria Domingez Dornutegikoak (Andresen alargunak) beste 4 kintalak ordaindu zizkion. Ondorioz, Ana Arretxek ahalmena



5.11. irudia. Zumaiako Artadiko Dornutegi.

eman zion Maria Domingez alargunari zegokion partea gainerako gipuzkoarrei kobra ziezaien. Lekuko zestoar hauek izan ziren: Domingo Arrona (Ana Arretxeren semea), Joan Urbietta eta Martin Akoa (ikus [XVI. m. (35-VIII) 9] agiria).

- 1535-X-10ean, Iraetako burdinolan, Blas Artazubiaga eskribauarekin Grazia Kortazar alarguna bere fidatzaile Fernando Sorazabal debarrarekin elkartu ziren. Graziak Zestoako Domingo Arronari 11,5 kintal burdinako zorra egin zion, eta hurrengo Eguberri egunean ordainduko zion, Beduan burdinak utzita. Lekuko zestoar hauek izan ziren: Nikolas Martinez Egiakoa (Iraetako jauna), Joan Aldalur eta Beltran Zubeltzu morroia.

Jarraian, eskribau eta lekuko berak aurrean zirela, Grazia Kortazarrek konpromisoa hartu zuen Fernando Sorazabali 13,5 kintal burdina pletinatan hurrengo Eguberri egunean emateko. Berez 2 kintal burdina ordainduko zizkion, eta beste 11,5 kintalen obligaziotik Graziak onik aterako zuen Fernando (ikus [XVI. m. (35-X) 1] agiria).

- 1535-X-28an, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Beltran Arizmendi (Edarritzagako olagizona) azaldu zen. Domingo Arronari Beduako errenterian, abenduaren erdi aldean, 6 kintal burdina emango zizkion. 6 kintalak lehendik zor zizkieten Beltran Arizmendik eta Joan Otaegik, eta Domingok ondasunak exekutatu egin zizkien.

Beltran Arizmendik 4 dobloi Blas Artazubiagaren esku utzita zeuzkan. Beltranek 4 dukat eta 6 kintal burdina jaso zituela onartu zuen, eta 6 kintalak ordaintzera behartu zen. Lekuko zestoar hauek izan ziren: Esteban Eztiola eskribaua, Joan Otxoa Artazubiagakoa eta Pedro Artzubiaga (ikus [XVI. m. (35-X) 8] agiria).

- 1535-XI-30an, Aizarnan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Domingo Arrona eta Domingo Aranguren azaldu ziren. Domingo Arangurenek Domingo Arronari 28 kintal burdina pletinaren balioa maileguz

hartu zion, eta zorra Beduan burdinak hurrengo ekainaren lehenean emanda ordainduko zion. Biek egun hartara arte izandako gainerako tratuen kontuak kitatuta geratu ziren. Lekuko Joanes Potzueta, Anton Zugasti eta Martin Akoa zestoarrak izan ziren (ikus [XVI. m. (35-XI) 10] agiria).

### **5.1.10. Sebastian Artazubiaga eta Martin Ondalde olagizonen tratuak**

- 1535-V-16an, Aizarnan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Martin Legarda eta Sebastian Artazubiaga azaldu ziren. Martinek Sebastiani maileguz 5 dukat hartu zizkion, eta handik hilabetera ordainduko zion zorra. Lekuko zestoar hauek izan ziren: Joanes Potzueta, Joango Intzina eta San Joan Etxegarai (ikus [XVI. m. (35-V) 7] agiria).

- 1535-VI-13an, Aizarnan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Zestoako Martin Ondalde eta Azpeitiko Bartolome Arano bildu ziren. Bartolome hain zuzen Azpeitiko Alzaga doktorearen morroia zen, eta nagusiaren bidez 3 dukateko zorra ordaindu zion Martin Ondalderi. Ondorioz, honek Bartolomeri ordainagiria eman zion. Martin Indo, Joan Pagino eta Anton Altzolarats zestoarrak izan ziren lekuko (ikus [XVI. m. (35-VI) 6] agiria).

- 1535-VI-20an, Aizarnan, Zestoako Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Pedro Iribarrena eta Martin Ondalde azaldu ziren. Martinek Pedrori urrezko 3 dukat eta Gaztelako 7 erreal eman zizkion, eta honek Zestoako bideetan galtzadak egin eta konponduko zituen hurrengo abuztuaren amaierarako.

Lekuko zestoar hauek izan ziren: Pedro Ausoroetxea, Joan Elurra eta Martin Esteban Makatzaga (ikus [XVI. m. (35-VI) 8] agiria).

- 1535-VIII-1ean, Aizarnako Santa Engraziako elizaren aurrean, Blas Artazubiaga eskribauarekin Joan Arano eta Martin Ondalde elkartu ziren. Joan Aranok Martini Pagio inguruko mendietan ikatz-karga bakoitzeke txanpon erdia ordaintzeko konpromisoa hartu



5.12. irudia. Aizarnako Santa Engrazia. (Indalezio Oiangurenen argazkia).

zuen. Gainera Martinek egun batez gizon bat ipiniko zuen su-egurra egiteko. Joan Apategik egindako zorra zen hura, eta lan guztiak hurrengo San Migel egunerako amaituta egongo ziren. Lekuko Martin Indo, Martin Txiriboga eta Pedro Ausoroetxea izan ziren (ikus [XVI. m. (35-VIII) 1] agiria).

- 1535-XI-14an, Aizarnan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Martin Ondalde eta Sebastian Artazubiaga olagizonak elkartu ziren. Sebastianek Martini 30 kintal burdina pletinaren balioa dirutan eman zion, eta Martinek burdinak Beduako errenterian martxoko Andre Mariaren egunerako ordainduko zizkion. Lekuko Pedro Iribarrena, Joan Bengoetxea eta Martin Azkue zestoarrak izan ziren (ikus [XVI. m. (35-XI) 7] agiria).

### 5.1.11. Maria Ortiz Iraetakoaren eta Fernando Sorazabalen agiriak

- 1535-VII-31n, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Debako Fernando Sorazabal eta Zestoako Mariatxo Ipintza azaldu ziren. Mariatxok Fernandori dirutan 12 kintal burdina pletinaren balioa maileguz hartu zion, eta zorra urtebete barru Beduako errenterian burdinak emanda ordainduko zion.

Obligazio-agirian lekuko hiru zestoar hauek izan ziren: Migel Artazubiaga, Martin Artzubiaga eta Joan Gorosarri (ikus [XVI. m. (35-VII) 3] agiria).

- 1535-X-18an, Aizarnazabalen, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean hauek azaldu ziren: Debako partean bizi ziren Domingo Zelaia eta Sebastian Zelaia anaiak, eta Iraetako olagizon Fernando Sorazabal. Bi anaiak Erletegoikoa baserriaren mendietan ikatza egingo zioten Fernandori, 2,5 txanponean karga bakoitza. Lanak Pazko garizumakoan amaituta egongo ziren.

Fernandok egun hartan 8 dukat aurreratu zizkien anaiei, eta gainerakoa ikatza egin ahala ordainduko zien. Kontratuan lekuko zestoar hauek izan ziren: Beltran Arizmendi, San Joan Etxegarai eta Joan Fernandez Arretzekoa.

Jarraian, Fernando Sorazabalek obligazio-agiria eman zion Zestoako Domingo Arronari, Eguberri egunerako 10 kintal burdina Beduan ordaintzeko konpromisoa hartu zuelako. Berez Domingori zorra Joan Larretzek egin zion, baina Fernandok ordainduko zion. Joan Larretzek Azkaetan zeuzkan bere 20 behi hipotekatu zituen Fernando Sorazabalen alde.

Lekuko zestoar hauek izan ziren: Beltran Arizmen-  
di, Martin Ondalde eta Joan Fernandez Arretxekoa  
(ikus [XVI. m. (35-X) 5] agiria).

- 1535-VIII-16ean, Aizarnan, Blas Artazubiaga es-  
kribauaren aurrean hauek azaldu ziren: batetik Aiako  
Domingo Aizpitarte, eta, bestetik, Zestoako Maria Ortiz  
Iraetakoa. Domingok zioenez, Aizpitarte baserrian ardi-  
aziendako 58 buru zeuzkan Maria Ortizek emanda, han  
erdi bana hazteko. Hurrengo bi urteetan (San Migel  
eguna arte) eduki eta haziko zituen ardiak Domingok.

Domingok Maria Ortizi bere erdiagatik 2 dukat eta  
41,5 txanpon ordainduko zizkion, eta ordaindu arte  
ganadua Maria Ortizen alde hipotekatuta egongo zen.  
Kontratu-agirian lekuko zestoar hauek izan ziren:  
Klemente Aisoro, Joan Urbieta eta Joango Zuube.

Jarraian, leku berean, zestoar hauek elkartu zi-  
ren: batetik Maria Ortiz Iraetakoa alarguna eta Joan  
Igartza, eta, bestetik, Joan Kortazar. Joan Kortazarren  
osaba Joan Kortazarrek (izen berekoak) Maria Lopez  
Iraetakoa zena zuen emaztea, eta umea izan zuten.  
Maria Lopezek senarraren laguntzarik gabe hazi zuen  
semea. Joan Kortazarri senipartea zegokion Kortazar  
etxean, eta Maria Lopezzi umearen mantenua ordaindu  
behar zion.

Maria Lopezen oinordekoa Maria Ortiz Iraetakoa  
zen. Beraz, Joan Kortazarrek Maria Ortizi 6 dukat  
emango zizkion. Maria Ortizek eta Joan Igartzak  
konpromisoa hartu zuten Joan Kortazar bere on-  
dasunetan segurtatzeko. Maria Ortizek, bestalde,  
konpromisoa hartu zuen Joan Igartza obligazio harta-  
tik kalterik gabe ateratzeko. Lekukoak, besteak beste,  
zestoar hauek izan ziren: Joan Gorosarri, Joan Urbieta  
eta San Joan Etxegarai (ikus [XVI. m. (35-VIII) 7]  
agiria).

- 1535-XI-28an, Aizarnan, Blas Artazubiaga es-  
kribauarekin Maria Ortiz Iraetakoa alarguna eta Joan  
Kortazar bildu ziren. Joan Kortazarrek Maria Ortizi  
urrezko 6 dukat eman zizkion, Maria Lopez Iraetakoa  
zenaren oinordeko zelako. Maria Ortizek ordainagi-  
ria eman zion Joan Kortazarri. Lekuko zestoar hauek  
izan ziren: Joan Martinez Ibañetakoa apaiza, Pedro  
Ausoroetxea eta Joan Bengoetxea (ikus [XVI. m. (35-  
XI) 9] agiria).

- 1535-XII-12an, Aizarnan, Blas Artazubiaga es-  
kribauaren aurrean Maria Ortiz Iraetakoa zestoarra  
azaldu zen. Graziana Zuube alabari ahalordea eman  
zion. Lekuko Joanes Potzueta apaiza, Martin Zuube  
eta Joango Intzina-Zelaia izan ziren (ikus [XVI. m.  
(35-XII) 4] agiria).

5.13. irudia. Iraetako  
eliza eta frontoia.



### 5.1.12. Ipintzatarren, zubiaurretarren eta artzuriagatarren agiriak

- 1535-V-12an, Zestoan, Joan Bengoetxea alkatearen eta Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean zestoar hauek azaldu ziren: Maria Perez Baltzolakoa (Joan Perez Altzolaraskoaren emaztea) eta Ana Ipintza (Fernando Olazabalen emaztea). Joan Perezek 8 edo 9 urte zeramatzan Indietan, eta Fernandok urtebete zeraman ekialdean.

Anak eta Maria Perezek informazio-lekuko hauek aurkeztu zituzten: Joan Artiga, Miguel Artazubiaga eta Martin Zubiaurre. Zin egin zuten egia aitortuko zutela.

Ana Ipintzak Debako Santxa Igartzari etxea saldu zion 20 dukatean, eta honek ordaindu egin zion. Bestalde, Ana Ipintzak Maria Perez Baltzolakoari 22 dukat eta 32,5 txanponeko zorra ordaindu zion. Ondorioz, Maria Perezek Anari ordainagiria eman zion. Egun hartara arteko tratuen kontuak ere garbitu zituzten, elkarri ordainagiria emanda (ikus [XVI. m. (35-V) 3] agiria).

Ondorioz, Anak eta Maria Perezek Santxari ordainagiria eman zioten. Joan Artiga, Martin Zubiaurre eta Migel Artazubiaga zestoarrak izan ziren lekuko.

Egun eta leku berean, eskribau eta lekuko berak aurrean zirela, Debako Santxa Igartzak bertako Fernando Igartzari obligazio-agiria eman zion. Santxak hurrengo inauterietan 12 dukat emango zizkion Fernandori, nahiz eta zorra berez Ana Ipintzarena izan.

Jarraian, Fernandok eta Anak beren arteko harremanen kontuak egin zituzten, eta Anari 2 dukateko zorra geratu zitzaion. Gainerakoaren ordainagiria eman zion Fernandok (ikus [XVI. m. (35-V) 4] agiria).

- 1535-V-17an, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauarekin Zestoako Martin Ibañez Zubiaurrekoa eta Errezilgo Antxiturbiko maizter Pedro Iturriaga bildu ziren. Martinek eta Pedrok elkarren artean izandako tratuen kontuak egin zituzten. Pedrok Martini 7 dukateko zorra ordaindu egin zion, eta honek hari ordainagiria eman zion. Lekuko zestoar hauek izan ziren: Joan Ibañeta, Domingo Lizarrarats eta Otxoa? Areitzaga (ikus [XVI. m. (35-V) 9] agiria).

- 1535-VIII-15ean, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauarekin hauek bildu ziren: batetik Domingo Aranguren eta Sebastian Oviden, eta, bestetik, Martin Ibañez Zubiaurrekoa. Domingok eta Sebastianek maileguz 18,5 dukateko idi para erosi zioten Martin Ibañezi, eta zorra hurrengo urteko San Joan egunean



5.14. irudia. Arroako Igartzatzikiberri.

ordainduko zioten. Salerosketa-agirian lekukoetako bi Pedro Akoa eta Martin Artzuriaga izan ziren (ikus [XVI. m. (35-VIII) 6] agiria).

- 1535-V-31n, Arroako Zebainerreka etxean, Zestoako Blas Artazubiaga eskribauarekin hauek elkartu ziren: batetik Martin Artzuriaga zestoarra, eta, bestetik, Debako Maria Martin Lastur eta Martin Arriola suhia.

Lehenago, Tomas Larretzek eta Maria Artzuriagak (Martinen arrebak) lur batzuk saldu zituzten Itziar aldean. Gero, Tomas hil eta Pedro Goiorekin ezkondu zen Maria Artzuriaga, eta beste lur batzuk saldu zituzten. Lur haiek guztiak gero Maria Martin Lasturren eta suhiaren eskuetara etorri ziren (ikus *III ZESTOA XVI. MENDEAN (1520-1530)* liburuko [XVI. m. (28-I) 18] agiria). Salmenta haiek Debako Martin Perez Gorozikakoa, Sebastian Arriola eta Joan Fernandez Leizaolakoa eskribauaren aurrean egin ziren.

Saldutako lurren izenak Itziar aldeko Iribe, Gaztainazarraga eta Ormaazpia izenekoak ziren. Geroztik Maria Artzuriaga eta honen alaba Maria Otxoa Artzuriagakoa hil egin ziren, eta haien eskubide guztiak Martin Artzuriagak zituen. Matinek zioenez, delako lur haiek ezin ziren saldu, dote gisa emanak zirelako, eta, gainera, oso merke saldu ziren.

Beraz, auzitan ez ibiltzearen, Martinek eta Maria Martinek kontratua egin zuten. Lurraren sagarrondo-oin deitutako unitateak (bederatzi besoko neurrikoak) 18 txanponeko prezioa egingo zuen, hau da, 4 errealekoa. Lurrak aztertzen hauek ibili ziren: Martin Ibia, Joan Sorazu, Joan Perez Zabalakoa, Domingo Antso-rrégi eta beste batzuk.

Ondorioz, Maria Martinek eta suhiak 12 dukat ordaindu zizkieten Martin Artzuriagari, eta urtebete barru beste 12 dukat ordaintzeko obligazio-agiria eman zioten. Horrela lurren eskubide guztiak izango zituzten Maria Martinek eta suhiak.

Agirian lekuko debar hauek izan ziren: Joan Lizarrarats, Domingo Etxenagusia eta Fernando Soraza-

bal. Joan Lizarrarats Zestoako auzotar ere bazen (ikus [XVI. m. (35-V) 20] agiria).

- 1535-XI-12an, Zestoako errebalean, Blas Artazubiaga eskribauarekin Debako Maria Martinez Lasurkoa eta Zestoako Martin Artzuriaga elkartu ziren. Lehenago, maiatzaren 31n, Maria Martinezek Martini 12 dukateko zorra egin zion, eta egun hartan zorra ordaindu egin zion. Elkarrekin egun hartara arte izandako harremanen kontuak ere egin zituzten. Martinek ordainagiria eman zion Maria Martinezi.

Lekuko hiru zestoar hauek izan ziren: Joan Artiga, Joan Martinez Lilikoa eta Martin Arano (ikus [XVI. m. (35-XI) 5] agiria).

### **5.1.13. Domingo Aranbururen lursailaren trukea eta testamentua**

- 1535-IV-27an, Aizarnan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean hauek azaldu ziren: batetik Domingo Aranburu eta Maria Aranburu emaztea, eta, bestetik, Joango Zelaia-Intzina eta Maria Potzueta-Intzina emaztea. Domingok eta emazteak Joangori eta honen emazteari Zabalzelai izeneko soro eta sagastia eman zieten, eta hauek haiei trukean Ubotoa? izeneko sagastia. Zabalzelai izeneko lurrak Potzueta eta Aldalur baserrien lurrak zituen mugakide, eta Ubotoa? Aranburu, Urrutikoetxea eta Iribarrena etxeen lurren muga zegoen.

Bi emazteek zin egin zuten truke-kontratu haren aurka ez zirela joango. Agirian lekuko hauek izan ziren: Joanes Potzueta apaiza, Domingo Arrona gaztea eta Joan Arano (ikus [XVI. m. (35-IV) 2] agiria).

- 1535-VII-24an, Aizarnan, Blas Artazubiaga eskribauaren bidez Domingo Aranburuk testamentua egin zuen. Aizarnako elizan Aranburu etxekoen hilibian lurperatuko zuten. Ohiko hiletak eta elizkizunak egingo zizkieten. Zenbait limosna ere eman zuen: gaitibu zeuden kristautentzat erreal bat, Aizarnako elizari dukat erdia, eta gauza bera Santa Engraziako ermitari eta Zestoako elizari. Guadalupeko Andre Mariari dukat bat eta 16 erreal emango zizkieten.



5.15. irudia. Aizarnako Aranburu.

Ondoren zorren zerrenda egin zuen. Maria Martinez Erletekoari guztira 6 dukat zor zizkion, Joan Perez Idiakaitz-Lilikoari 3 dukat, Migel Martinez Olberrietakoari (Azpeitiko Barrenolako olagizonari) honek aitortzen zuena, Etxabebekoako Bartolome Etxaberi ere aitortzen zuena, Joan Otxoa Artazubiagakoari 14 dukat, Lasaoko andreari 4 erreal, etab.

Domingo Aranburuk eta Grazia Perez Potzuetakoa arrebak kontuak egin zituzten, eta Domingok Potzuetakoa etxeko senipartekatik artean 24 dukat jasotzeko zeuzkan. Aranburu etxean Domingok ganadu hauek zituen: idi pareak, 28 ardi, 10 arkume, 17 ahuntz, 3 txerri eta 6 txerrikume.

Domingo Aranburuk eta emazte Maria Aranburuk seme-alaba hauek izan zituzten: Andres eta Joaniko Aranburu semeak, eta Maria Aranburu alaba. Emazteak aukeratuko zuen herenaren eta bostenaren hobekuntza zein seme edo alabari eman. Testamentu-betearazle zestoar hauek izendatu zituen: Joan Otxoa Artazubiagakoa, Migel Martinez Olaberrietakoa, San Joan Perez Idiakaitz-Lilikoa lizentziatua eta Maria Aranburu emaztea.

Testamentuan lekuko zestoar hauek izan ziren: Joan Otxoa Artazubiagakoa, Joanes Potzueta eta Domingo Aranguren (ikus [XVI. m. (35-VII) 2] agiria).

#### 5.1.14. Zuubetarren, altzolarastarren eta akertzatarren tratu eta agiriak

- 1535-IX-16an, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Domenja Zuube (Joan Goenagaren alarguna) aurkeztu zen. Hamaika hilabete lehenago Domenjaren anaia Joan Zuube zilargina hil egin zen, eta oinordeko unibertsal Domenja Zuube arreba izendatu zuen.

Gortean zebilen Pedro Migel zilarginak 120.000 maraiko eta 3.000 maraiko zorrak utzi zizkion Joan Zuube zenari. Horrez gain tresnak eta zilargintzako erremintak eman behar zizkion Joan zenaren oinordekoari. Ondorioz, Domenja Zuubek ahalordea eman zien Zestoako Migel Artazubiagari eta Joan Martinez Lilikoari aipatutako zor eta gauzak kobra eta jaso zitzaizten. Agirian lekuko zestoar hauek izan ziren: Esteban Artazubiaga, Joanes Potzueta eta Joan Martinez Erretzabalgoa.

Jarraian, eskribau beraren aurrean eta Zestoako alkate Joan Bengoetxearen aurrean, Domenjak eskea egin zuen. Anaia Joan Zuube zenaren zorrak kobratzeko lekukoek testigantzak lortzea nahi zuen, bera alargun bizi zela eta anaia zenaren oinordeko unibertsal zela frogatzeko. Domenjak lekuko gisa hiru zestoar hauek aurkeztu zituen: Esteban Eztiola eskri-

baua, Esteban Artazubiaga eta Joanes Potzueta (Zestoako elizako apaiza). Hiru lekukoek zin egin zuten egia aitortuko zutela.

Esteban Eztiolak zioenez, Joan Zuube zilargina gortean ezagutu zuen, han lan egin zuelako. Zestoan ere ezagutu zituen anai-arrebak. Joanen oinordeko unibertsal zen Domenja Zuube, eta Domenjak egin zizkion Joani Zestoako elizan hiletak eta elizkizunak. Joan Zuuberen ama bost bat hilabete lehenago hil omen zen, eta ama-semeak biak Zestoako elizan hilobiratu omen zituzten.

Antzeko erantzunak eman zituzten Joanes Potzueta eta Esteban Artazubiaga lekukoek. Ondoren alkateak agindua eman zion eskribauari. Agiriaren kopia (sinatuta eta Zestoako Kontzejuaren zigiluaz zigilatuta) Domenja Zuuberi eman behar zion. Lekuko zestoar hauek izan ziren: Pedro Artazubiaga, Joan Martinez Lilikoa eta Joan Martinez Erretzabalgoa (ikus [XVI. m. (35-IX) 8] agiria).

- 1535-X-12an, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Domenja Zuube zestoarra azaldu zen. Joan Zuube anaiarekin auzia zuen, eta ahalordea eman zien Gipuzkoako korrejimenduko zenbait prokuradoreri. Hauek ziren prokuradore horietako

batzuk: Jeronimo Atxaga, Beltran Arizmendi, Joan Zabala, Joan Lopez Etxanizkoa eta beste lau.

Ahalorde-agirian lekuko zestoar hauek izan ziren: Pedro Akoa, Anton Arretxe eta Joan Legarda (ikus [XVI. m. (35-X) 2] agiria).

- 1535-XII-6an, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Joan Arrona eta arreba Domenja Zuube azaldu ziren. Biek anaia izan zuten Joan Zuube zilargin zena, eta biak ziren Katalina Areitzaga zenaren seme-alabak.

Ama Katalina Areitzagak ontzat eman zuen orduan Joan Zuuberen testamentua, eta Katalinak bere testamentua egin zuenean ere bai. Ondoren Domenjak ahalordea eman zion Migel Artazubiaga zestoarrari gortean Pedro Migeli zorra kobra ziezaion.

Migel Artazubiagak gortean Pedro Migeli 100.000 marai kobratu zizkion, eta gainerakoaz Pedro Migelek eta Gonzalo Maluenda fidatzaileak obligazio-agiria eman zioten Domenja Zuuberi. Beste 42.000 marai hurrengo urteko Pazko garizumakoan ordainduko zizkieten.

Dena den, orduan Joan Arronak arreba Domenja Zuuberi demanda ipini zion korrejidorearen auzitegian,

5.16. irudia. Arroako Areitzaga Zelaikoa.



Katalina Areitzaga ama zela Joan zilarginaren oinordekoa esanez. Korrejidoreak bahituta zeuzkan Migel Artazubiagak Domenjarentzat kobratutako diruak.

Auziari irtenbidea ematearren, Joan Arrona eta arreba Domenja Zuube ados jarri ziren: Domenjak 30 dukat ordaindu zizkion Joani, eta honek auzia bertan behera utzi zuen. Lekuko Domingo Arrona, Pedro Artzubiaga eta Pedro Akoa zestoarrak izan ziren.

Jarraian, eskribau beraren aurrean, Domenja Zuube eta Migel Artazubiaga azaldu ziren. Migel gortera joan zen Pedro Migel zilarginari Domenjari zor ziona kobratzera. 100.000 marai kobratu zituen, eta 42.000 marai hurrengo Pazko garizumakoan ordaintzeko obligazioa egin zuen Pedro Migelek Diego San Martin eskribauaren aurrean, aurreko urriaren 14an.

Domenjak 100.000 maraiak kobratu zituen, Migel Artazubiagak hauek emanda: 114 dobloi, 2 dukat, urrezko 34 koroa, 4 dukat soil, Gaztelako 10 erreal, txanpon bat eta 10 marai. Domenja Zuubek ontzat eman zituen Migelek egindako ordainketa eta Diego San Martin eskribauarekin egindako agiria. Lekuko zestoar hauek izan ziren: Esteban Akertza, Lope Ernataritz eta Pedro Ziorraga zapataria (ikus [XVI. m. (35-XII) 2] agiria).

- 1535-XI-5ean, Aizarnan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Maria Perez Altzolaraskoa alarguna azaldu zen. Zestoako Katalina Baltzolarekin auzia zuen, eta ahalordea eman zien Gipuzkoako korrejimenduko eta Valladolidko Kantzelaritzako zenbait prokuradoreri. Jeronimo Atxaga, Beltran Arizmendi, Joan Zabala eta beste lau ziren korrejimenduko prokuradoreak, eta Joan Lopez Arrietakoa, Frantzisko Oro eta beste lau Kantzelaritzakoak.

Ahalorde-agirian lekuko hauek izan ziren: Debako Domingo Ariztondo, Ordiziako Joan Arteaga eta Zestoako Pedro Ausoroetxea (ikus [XVI. m. (35-XI) 1] agiria).

- 1535-XI-7an, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean bi zestoar azaldu ziren: Maria Perez

Altzolaraskoa alarguna (Martin Artzubiaga zenaren ama) eta Katalina Baltzola erraina (Martinen alarguna). Mariak eta Katalinak auzia zuten korrejidorearen aurrean, Mariak, semearen oinordeko gisa, dotea eta arreo eskatzen zituelako. Hala ere, egun hartan ados jarri ziren auzia zegoen puntuan hurrengo Urteberri egunera arte uzteko.

Lekuko zestoar hauek izan ziren: Pedro Ezenarro (edo Akoa), Pedro Baltzola eta Frantzisko Baltzola (ikus [XVI. m. (35-XI) 1] agiria).

- 1535-XI-12an, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean hauek azaldu ziren: batetik, Eibarko Andres Mallabia eta Soraluezko Domingo Argarate, eta, bestetik, Zestoako Esteban Akertza. Zestoarrari beste biek lizarrezko 100 lantza egin eta bere burdin-ekin emango zizkieten: 50 lantza 5 kana luzekoak eta beste 50 lantza 5,5 kana luzekoak.

Lantza bakoitzak 2,5 erreal balio zuen, eta Estebanek 10 dukat aurreratu zizkien. Gainerakoa lantzak Beduan urtarrilaren erdi aldean emandakoan ordainduko zien. Lekukoetako bi Joan Gorosarri eta Lope Amilibia izan ziren (ikus [XVI. m. (35-XI) 6] agiria).

- 1535-XII-12an, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Esteban Akertza eta Oñatiko Antso Oñate lantzagilea azaldu ziren. Estebanek Antsori lizarrezko 100 lantza erosi zizkion, bakoitza 2 errealean. Lantzak hurrengo otsailaren 2an (Kandelerio egunez) Beduako errenterian emango zizkion, zerga guztiak ordainduta. 50 lantza 20 arra bete luzekoak izango ziren, eta gainerakoak lizarrak emandakoaren arabekoak.

Estebanek oñatiarrari urrezko 8 dukat aurreratu zizkion, eta gainerakoa lantzak emandakoan ordainduko zion. Lekuko Oñatiko Joan Osinaga eta Zestoako Joanes Garratza eta Domingo Artazubiaga izan ziren. Joan Osinagak zin egin zuen Antso Oñate ezagutzen zuela (ikus [XVI. m. (35-XII) 5] agiria).

### 5.1.15. Beste zenbait kontratu eta agiri

- 1535-V-2an, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Debako Joan Igartza erta Zestoako Martin Argin bildu ziren. Martinek lehenago Fortun Santxez Iraetakoa artzapezari 6 dukateko zorra egin zion, eta zor hura kobratzeko ardura Joan Igartzak zuen. Martinek Joani 6 dukat eman zizkion, eta honek hari ordainagiria. Lekukoetako bi Zestoako Jakobo Ipintza gaztea eta Joan Urbieta izan ziren (ikus [XVI. m. (35-V) 1] agiria).

- 1535-V-28an, Getarian, Zestoako Blas Artazubiaga eta Getariako Joan Perez Ganboakoa eskribauaren aurrean, hauek azaldu ziren: Getarian bizi ziren Beltran Zakaio eta Katalina Pagino emaztea. Senar-emazteek ziotenez, Zestoako Pagino baserria Katalinaren gurasoek saldu egin zuten behin eta berriz. Ondorioz, Pagino baserria Zestoako Pedro Martinez Baltzolakoaren eta Maria Perez Baltzolakoa alabaren esku zegoen.

Horretarako Katalinak, honen amak eta anai-arrebek salmenta-agiria egin zuten, Getariako Joan Martinez Amilibikoa eskribauaren aurrean, 1513-XII-28an (ikus gai honi buruz *II ZESTOA XVI. MENDEAN (1501-1520)* liburuko [XVI. m. (11) 6] agiria). Dena den, 1513ko agiri hartan akatsa zegoen, Katalina Pagino izena idatzi ordez, eskribauak Maria Pagino (ordurako hila zen ahizparen izena) idatzi zuelako. Katalinak, ordea, bere parte eskatzen zuen.

Ondorioz, Katalina Paginok eta Pedro Martinez Baltzolakoak auzia zuten korrejidorearen aurrean, baina bi aldeak elkarrekin konpondu eta auzia bertan behera utzi zuten. Pedro Martinezek eta alabak 80 dukat emango zizkieten Katalinari eta senarrari: 40 dukat orduan eta beste 40 handik urtebetera.

Katalina Paginok fidatzaile hauek aurkeztu zituen: Joanes Zakaio (Beltran Zakaioaren anaia) eta Joan Perez Ganboakoa eskribaua. Katalinak zin egin zuen agiri hark zioenaren aurka ez zela joango. Lekuko Zestoako Domingo Artazubiaga eta Migel Artazubiaga, eta Getariako Iñigo Atristain izan ziren.



5.17. irudia. Oñatiko udaletxea.

Jarraian, leku berean eta eskribau zein lekuko berak aurrean zirela, Zestoako Domingo Lizarraratsek obligazio-agiria eman zien Katalina Paginori eta bere senarrari. Pedro Martinez Baltzolakoaren partetik 40 dukat emango zizkien handik urtebetera (ikus [XVI. m. (35-V) 19] agiria).

- 1535-VI-5ean, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauak Zestoako San Joan Arretxek gari eta diruen tratuan hartzekodunekin izandako harremanen idazpenak idatzi zituen. Britainiako Brest herriko Joan Flor jaunari 77 dukat emango zizkion 291 anega garigatik. Gariak Zumaian saldu ziren, eta Domingo Arretxeren alargunak zeuzkan. Joan Flor jaunari pleitamenduen-gatik eta maileguz hartutako diruengatik zor zizkion 77 dukatak San Joanek.

San Joan Arretxek (Bernal Agirrerren suhiak) Bordeleko Guillaume de la Cornierari 6 tona gari busti

eman zizkion. Joan Flor jaunaren itsasontzian San Joanez ekarritako gari busti guztiak Guillaumeri utzi zizkion. Zumaiako zenbait etxetako ganbaratan zegoen garia. San Joan zestoarrak *La Luysa* itsasontziko Pierre Le Luy? ontzi-maisuarengandik jasotzeko zeukan guztia ere Guillaumeri utzi zion.

Joanes Tolosari eta Hondarribiko Pasaiaiko Tomas Gijun jaunei San Joan Arretzek 54 dukat ordainduko zizkien (40 dirutan eta 14 ehun eta oihaletan).

Agirian lekuko hauek izan ziren: Zestoako Joan Martinez Amilibikoa eskribaua, Pedro Artzubiaga eta Martin Akoa (ikus [XVI. m. (35-VI) 2] agiria).

- 1535-VI-13an, Aizarnan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean hauek azaldu ziren: Maria Joango Pagino, Joan Pagino eta Joan Martin Indo. Maria Joangok eta ahizpa Domenja Pagino zenak eskubidea zuten Pagiolarre baseritik senipartea kobratzeko. Horretarako Joan Paginok lur batzuk saldu zituen Getariako Sebastian Zabalaga eskribauaren aurrean, eta Maria Joango bere partea kobratuta zegoen. Ondorioz, bere eskubide guztiak Joan Paginori eman zizkion.

Joan Martin Indok erosi zizkion Joan Paginori aipatutako lurrak, eta honek hari ordainagiria eman

zion. Lekuko Zestoako Joan Otaegi, Domingo Aranguren eta Joan Pagino izan ziren (ikus [XVI. m. (35-VI) 4] agiria).

- 1535-VI-13an, Aizarnan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean hauek azaldu ziren: Domingo Aranguren eta Sebastian Oliden. Domingo nagusiak Sebastian maizterrari Aizarnako Aranguren baserria lau urterako (hurrengo San Migel egunean hasita) errentan eman zion. Urtero 6 dukat ordainduko zizkion maizterrak.

Ganaduak eta idi pare erdi bana ipiniko zituzten, baina txerriak Sebastianenak izango ziren. Baserriko upelak gutxienez orduan zeudenak itzuliko zizkion errenta aldia amaitutakoan, baina Sebastianek hobetzen bazituen, Domingok ordaindu egingo zion edo Sebastianek errentatik deskontatuko zuen hobekuntza. Joan Otaegi eta Pedro Iribarrena izan ziren lekukoetako bi (ikus [XVI. m. (35-VI) 5] agiria).

- 1535-VIII-11n, Orion, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean hauek azaldu ziren: batetik Aiako Pedro Olaberria (Olaberriko olagizona), eta, bestetik, Joan Etxabe oriotarra. Joanez Pedrori 82 kintal burdinako zorra egin zion Martin Gartzia Ganboakoa eskribauaren aurrean. Egun hartan, ordea, Joanez zorra ordaindu egin zion dobloitan eta Gaztelako errealetan.



5.18. irudia. Aizarnako Aranguren.

Pedrok Joani ordainagiria eman zion. Lekuko hauek izan ziren: Domingo Erretola (Orioko bikarioa), Aiako Joan Fernandez Olaberrikoa eta Zestoako Pedro Artazubiaga (ikus [XVI. m. (35-VIII) 4] agiria).

- 1535-VIII-12n, Orion, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean hauek azaldu ziren: Aiako Joan Martinez Mañarinzelaiakoa eskribaua eta Azpeitiko Joan Martinez Lasaokoa eskribaua. Joan Martinez Lasaokoak 100 kintal burdinaren balioa maileguz eman zizkion aiarrari, eta honek azpeitiarrari zorra Geletako errenterian burdinak hurrengo otsailaren amaierarako emanda ordainduko zion. Lekuko Aiako Joan Fernandez Olaberrikoa, Domingo Olaberria eta Pedro Olaberria izan ziren.

Jarraian Joan Indok eta Domingo Amasek Joan Martinez Lasaokoari obligazio-agiria eman zioten 50 kintal burdina pletinatan Oribarko errenterian hurrengo urtarrilaren amaierarako emateko. Burdinen balioa urrezko dobloitan jaso zuten maileguz Joan Indok eta Domingo Amas fidatzaileak. Lekuko hauek izan ziren: Orioko Domingo Urrezi eta Txomin Etxaniz, eta Azpeitiko Joaniko Gorriaranen (Asentzio Gorriaranen semea).

Obligazio-agirian lekuko zestoar hauek izan ziren: Martin Indo, Martin Txiriboga eta Pedro Ausoroetxea (ikus [XVI. m. (35-VIII) 5] agiria).

- 1535-VIII-18an, Zumaian, Joan Arbestain eskribauaren aurrean Zestoako Altzolarasko Martin Egia olagizona eta Zumaiako Andres Martinez Malleakoa elkartu ziren. Elkarren artean egun hartara arte izandako harremanen kontuak garbitu zituzten. Andresek Martini ordainagiria eman zion, zor guztia ordaindu ziolako. Lekuko Debako Joan Zugasti eta Zumaiako Beltran Mantzizidor apaiza eta Joan Saez Zumaiakoa eskribaua izan ziren (ikus [XVI. m. (35-VIII) 8] agiria).

- 1535-VIII-29an, Aizarnan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean hauek elkartu ziren: batetik, Gorosarrigoiena baserriko Joan Gorosarri, eta, bestetik, Maria Joango Gorosarri (Anton Edarritzagaren emaztea) eta Grazia Gorosarri (Joan Majado de Pozaren

emaztea). Joan Gorosarriren aita Migel Gorosarri izan zen, eta Migel Lizasoeta eta Maria Joango Gorosarri izan zituen aitona-amonak. Ondorioz, Gorosarrigoienan senipartea jasotzeko eskubidea zuen.

Ordura arte kobratutakoaz gain, beste 20 dukat zeuzkan jasotzeko Maria Joango eta Grazia Gorosarrirengandik. Joan Gorosarrik bere fidatzailetzat Blas Artazubiaga eta Esteban Eztiola eskribauak aurkeztu zituen. Joan Gorosarri 25 urte bete gabea zelako, Blas eta Esteban fidatzaileek zin egin zuten agiriak zioenaren aurka ez zirela joango.

Agirian lekuko Zestoako Beltran Arizmendi, Martin Azkue eta Asentzio Amilibia izan ziren. Joan Gorosarriri 20 dukatak hiru epetan ordainduko zizkioten: herena 10 hilabete barru, bigarren herena handik 10 hilabetera, eta hirugarrena beste 10 hilabetera. Joan Gorosarrik bere eskubide guztiak Maria Joango Gorosarriri eta Grazia Gorosarriri utzi zizkien (ikus [XVI. m. (35-VIII) 10] agiria).

- 1535-IX-3an, Siziliako Trapanin, Pedro Martinez Ondartzakoa eskribauaren aurrean Debako Frantzisko Olaso azaldu zen. Frantzisko zen Gipuzkoako Probintziako eskribau fiela, eta ofizio horregatik eskubideak zegozkion. Bestalde, erregearen pribilegioz eta bizialdi osorako, Lasturko Goikolea, Plazaola eta Leizaola burdinoletako zergak kobratzeko ere eskubidea zuen.

Hura guztia kobra zezaten, Frantzisko Olasok ahalordea eman zien ama Paskuala Etxanizi eta koinatu Domingo Ortiz Lasaldekoari. Agirian lekuko hauek izan ziren: Hernando Salazar, Frantzisko Ledesma eta honen morroi Frantzisko Perez. Frantzisko Ledesma jauna, besteak beste, Leongo komendadorea eta Errege-kontseiluko kide zen (ikus [XVI. m. (35-IX) 1] agiria).

- 1535-IX-5ean, Arroan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean hauek azaldu ziren: batetik Urretxuko Joan Zelaeta mazolaria, eta, bestetik, Itziarko Joan Etxaniz morroia. Itziartarrak urte hartan Fernando Eitzagaren burdinolan ofizial prestatzaile gisa lan



5.19. irudia. Baltzola baserria. (Indalezio Oiangurenen argazkia).

egingo zuen, eta hurrengo urtean urtzaile gisa Joan Zelaeta zebilen burdinolan. Burdinolak geldirik zudenean, itziartarra urretxuarrak agindutako beste edozein lanetan arituko zen. Joan Zelaetak ofizioa edo ofizioak ongi irakatsiko zizkion, eta soldata gisa 7 dukat ordainduko zizkion morroiari: erdia urtebete barru, eta beste erdia handik beste urtebetera.

Kontratua betetzen ez zuenak beste aldeari 10 dukateko isuna ordainduko zion. Joan Etxanizek, 25 urte bete gabea zelako, zin egin zuen kontratuaren aurka ez zela joango. Lekukoetako bi Esteban Eztiola eta Martin Indo zestoarrak izan ziren (ikus [XVI. m. (35-IX) 2] agiria).

- 1535-IX-6an, Arroan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Arroako Joan Perez Areitzagakoa eta Elgoibarko Domingo Olazabal elkartu ziren. Domin-

gok Joan Perezi hezitako idia hartu zion 7,5 dukatean, eta urtebete barru ordainduko zion zorra. Agirian lekuko hauek izan ziren: Zestoako Klemente Aisoro eta Pedro Baltzola, eta Debako Joan Baltzola eta Martin Olazabal (ikus [XVI. m. (35-IX) 4] agiria).

- 1535-IX-10ean, Zestoako errebaletan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Frantzisko Lopez Gallaistegikoa azaldu zen, Azpeitiko Domenja Akotegiren prokuradore gisa. Frantziskok zioenez, Aizarnako Joan Otaegik 2 dukat zor zizkion Domenjari. Honek azkenean, Gipuzkoako korrejidorearen bidez, ondusunak exekutatu egin zizkion, eta zorra 2 dukat eta 596 marairaino (auzi-gastuengatik) igo zen.

Zor osoa Esteba Edarritzagak (Joan Otaegiren koinatuak) ordaindu zion Domenja Akotegiri, eta honek ahalordea eman zion, bere eskubide guztiak utziz, koinatuari zegokiona kobra ziezaion. Lekuko hauek izan ziren: Zestoako Martin Artzuriaga eta Esteban Artazubiaga eta Bergarako Andres Berasoeta? (ikus [XVI. m. (35-IX) 5] agiria).

- 1535-XI-8an, Aizarnan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Errezilgo Joan Albisu eta Pedro Antxiturbia kaparia azaldu ziren. Joan Albisu maizter zegoen Errezilgo Antxiturbia baserrian, Martin Saez Ondarrakoa kapitain eta jabeari 6 urterako hartu ziolako. Urtero ordaindu beharreko errenta hau zen: 9 anega gari, 2 anega artatxiki, 2 anega olo, 4 gaztanbera eta 2 antxume. Errentamendu-kontratua lehena go egin zuten nagusi kapitainak eta maizterrak Joan Martinez Loidikoa eskribauaren aurrean.

Joan Albisuk eta Pedro Antxiturbiak erabaki zuten, igarotako San Migel egunetik aurrera bost urtez Pedro izango zen Antxiturbiko maizterra. Pedrok Joani aipatutako 9 anega gari, 2 anega artatxiki, etab. ordainduko zizkion.

Joanek Pedrori lehen urteko errentatik anega bat gari eta bi anega artatxiki deskontatuko zizkion, itxiturak konpontzeko lanagatik. Baserrian erreteila egi-tearen kostua ere deskontatuko zion.

Baserriak zituen zergak erdi bana ordainduko zituzten Joanek eta Pedrok, baina erregeari egin beharreko zerbitzuak Joanen kontu izango ziren. Kontratuan lekuko zestoar hauek izan ziren: Migel Artazubiaga, Joan Otaegi eta Bartolome Etxabe (ikus [XVI. m. (35-XI) 4] agiria).

- 1535-XII-17an, Beduan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean hauek azaldu ziren: batetik, Katalina Bedua eta Maria Arrona alargunak, eta, bestetik, Joan Belez Arbestain-Beduakoa. Maria, hain zuzen, Katalinaren erraina zen, eta biek nagusi gisa errentan eman zioten Joan Belez Arbestaingoari Ibañarrietako benta 10 urterako. Errenta aldia hurrengo Eguberri egunean hasiko zen.

Errentan Ibañarrietako bentaz gain, bere eranskin eta etxe ondoko lursaila ere eman zizkioten. Lursailaren mugak ere zehaztu zituzten. Joan Belez maizterrak urtero 7 dukat ordainduko zituen (erdia alargun bakoitzari), eta gainera beste baldintza batzuk ere beteko zituen. Etxeko ukuilu eta eskailera bitartean oholak ipiniko zituen, eta solairuan bentako gelaren gainean ere bai. Bedua aldeko zimenduaren ondoan kare eta harriz horma eraikiko zuen. Lan horien balioa lehen urteko errentatik deskontatuko zuen maizterrak.

Bigarren urteko deskontatzekoak izango ziren Irure aldera zegoen zimenduaren ondoan egingo zuen horma. Gainera, Joan Belezek ardiak eta ahuntzak beretzat hazi ahal izango zituen Beduako lurretan. Bi txerri ere hazi ahal izango zituen beretzat. Txerri gehiago baziren, Beduako ezkurragatik ordaindu egingo zuen Joan Belezek. Behiak hazi nahi bazituen, bi nagusiekin erdi bana izango zen.

Joan Belezek Beduako basoetatik su-egurra hartu ahal izango zuen, baina haritzik ez zuen ukutuko bi nagusien baimenik gabe. Maizterrak etxearen erreteila egingo zuen, eta kostatzen zitzaiona errentatik deskontatuko zuen. Gabonetan bi alargunei kapoi bana emango zien, eta Ibañarrietako gariak ehotzera Beduako errotara eramango zituen.

Errentamendu-kontratuan lekuko, besteak beste, hauek izan ziren: Zestoako Joan Artzubiaga, eta Azpeitiko Joan Perez Makibarkoaren morroi mandazaina eta Martin Usanditzaga (Joan Zabaletaren morroia) (ikus [XVI. m. (35-XII) 6] agiria).

### 5.1.16. Gipuzkoako Batzarrak eta beste zenbait gai

1535. urtean Gipuzkoako lehen Batzar Nagusiak Erreterian ospatu ziren, apirilaren 10etik 20ra. Bigarren Batzar Nagusiak Getarian izan ziren, azaroaren 15etik 24ra<sup>1</sup>. Getariako Batzarretan bertan zen del Barco korrejidorea. Zestoatik joandako prokuradorea Migel Artazubiaga izan zen. Lehen egunean dei egin zioten San Joan Perez Idiakaitz-Lilikoa lizentziatuari (Zestoako eta Getariako auzotarrari), Getariako Batzar Nagusietan lehendakari izan zedin. Hurrengo egunean (hilaren 16an) aurkeztu zen San Joan Perez Batzarretara. Ohiko zina egin zuen.

Bertan zenbait gai aztertu zituzten: burdin mea kanpora ateratzeko debekua ezarri zuten, Batzarretan botoak sukalde kopuruaren arabera emateko sistemaz (Zestoa gai horretan Azkoitiaren iritzi berekoa zen), igorpen-alkatea izendatzeaz, etab. Zestoako hiribilduak, bere zorrei aurre egiteko, baimena eskatu zuen 600 dukat biztanleei kobratzeko. Oikian egin beharreko zubiaren lekuaz ere eztabaidatu zuten<sup>2</sup>.

Gipuzkoako Batzarretan sukaldearen arabera hiribildu bakoitzak bere boto kopurua izatearen sistema eztabaida zegoen, zenbait hiribilduk ordezkari kopuruaren araberako boto kopurua izan nahi zutelako. Hala ere, Donostia, Tolosa, Segura eta hiribildu handien eraginez sukaldeakako sistemak jarraitu zuen, urte hartako ekainaren 23an Errege-kontseiluaren erabakiz<sup>3</sup>.

Bestalde, 1535. urteaz gero Probintziako merioordek irakurtzen eta idazten jakin beharko zuten, eta korrejidorearen entzutegian etenik gabe egon beharko zuten<sup>4</sup>. Urte hartako Batzarretan erabaki zenez, Iraetako burdinolako presa jaitzarazteko erabakia hartu zuten, uraren maila jaitsi eta bideak urpean gera ez zitezen<sup>5</sup>.

5.20. irudia. Getariako udaletxea eta plaza.



Urte hartan Loiolako San Inazio Paristik Azpeitira (Errezilgo Etumetatik igarota<sup>5</sup>) itzuli zen, osasunez makal zebilelako. Azpeitiko Madalenan bizi izan zen pobreekin batera. Azpeitian apiriletik uztaila arte egon zen, eta bertan jende ugariaren aurrean sermoiak egin zituen. Umeei dotrina irakasten ere saiatu zen. Azpeititik Iruñera joan zen, eta gero Valentziatik Veneziara abiatu zen itsasoz<sup>6</sup>.

Urte hartan, Narruondoko errenteria errentan hartuta zeukan Antonio Agirrek, konpromisoa hartu zuen Azpeitiko Joan Martinez Lasaokoa eskribauari 100 kintal burdina pletinatan ordaintzeko<sup>7</sup>. Halaber, urte hartan hasi zen lanean Zumaiako Gorostiaga etxearen lurretako ontziola, Beduatik gertu<sup>8</sup>. Gipuzkoako ontzioletan eraikitakoak ziren 1535ean Kahir ad-Din edo “Bizargorri” otomandarraren armadaren mendean zegoen La Goleta eta Tunis hiria konkistatu zuen itsas armadako hainbat itsasontzi<sup>9</sup>. Orduan 20.000 gatibu kristau askatu ziren. Konkistan parte hartu zuten, besteak beste, Martin Errente-

riak eta Tristan Ugarte oiartzuarrak<sup>10</sup>. 1525-VII-24az gero, Joan Sebastian Elkanoren Moluketarako bigarren espedizioan abiatutako bat Andres Urdaneta ordiziarra izan zen, eta hain zuzen portugaldarrekin itzulera negoziatu ondoren, 1535-II-15ean ekin zion etxera etortzeko bidaiari.

Espedizio hartan parte hartutakoa, baina 1528. urteaz gero Zumaiari zebilelako, Joanes Areitzaga apaiza zen. Hain zuzen 1535-III-1eko errege-agiri baten bidez Joanes Areitzagari 20 dukat ordaintzeko agindua eman zuten<sup>11</sup>. Bestalde, 1535. urtean Gonzalo Fernandez de Oviedo jaunak (*Historia General y Natural de las Indias* lanaren egile eta kronikariak) dioenez, Valladolidko gortean ikusi zuen Joanes Areitzaga. 35 bat urteko gizona omen zen Joanes<sup>12</sup>.

Joan Sebastian Elkano zenaren ama Katalina Portukoa semeari erregeak agindutako errenta kobratu ezinik zebilen, nahiz eta 1535-V-17an, Madrilan, Isabel enperatrizak epaia getariarraren alde eman<sup>13</sup>.

## 5.2. BOSGARREN KAPITULUKO OHARRAK

<sup>1</sup> ORELLA UNZUE, J. L. *Estudio iushistórico de las Juntas de Gipuzkoa hasta 1550*, in Las Juntas en la conformación de Gipuzkoa hasta 1550. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 1995. (252. or.).

<sup>2</sup> XX. Registro de la Junta General celebrada en Guetaria en noviembre de 1535. Gipuzkoako Artxibo Orokorra. Tolosa, JD AM 1.6. (1-11. or.).

<sup>3</sup> LARRAÑAGA ZULUETA, M. *Aproximación al estudio económico de Gipuzkoa a través de las fogueraciones de Juntas*, in Las Juntas en la conformación de Gipuzkoa hasta 1550. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 1995. (265. or.).

<sup>4</sup> LEMA PUEYO, J. A. *Dos instituciones en la formación de Gipuzkoa: las Alcaldías de la Hermandad y las Merindades del Corregimiento*, in Las Juntas en la conformación de Gipuzkoa hasta 1550. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 1995. (96, 98. or.).

<sup>5</sup> ACHON INSAUSTI, J. A. *Gipuzkoako komunikabideen Historia. 2/ Aro Modernoa (1500-1833)*. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 1998. (17, 30. or.).

<sup>6</sup> GOÑI GAZTANBIDE, J. *Historia de los obispos de Pamplona. III. alea. Siglo XVI*. Iruñea, 1985. (239, 240. or.).

<sup>7</sup> DIEZ DE SALAZAR, L. M. *Ferrerías guipuzcoanas. Aspectos socio-económicos, laborales y fiscales (siglos XIV-XVI)*. Donostia, 1977. (407. or.).

<sup>8</sup> ODRIOZOLA OIARBIDE, L. *Historia de Zumaia. Zumaiaiko Udala*. Zumaia, 1998. (354. or.).

<sup>9</sup> AROZENA, F. *Guipúzcoa en la Historia. Minotauro argit. Madril, 1964*. (201. or.).

<sup>10</sup> LABAIRU GOIKOETXEA, E. *Historia General del Señorío de Bizcaya. IV. alea. La Gran Enciclopedia Vasca argit. Bilbo, 1971*. (201. or.).

<sup>11</sup> XX. Indietako Artxibo Nagusia. Sevilla. Signatura: INDIFERENTE, 422, L. 16, F. 172-172v.

<sup>12</sup> ARTETXE, J. *Cuatro Relatos*. Gomez argit. Iruñea, 1959. (21. or.).

<sup>13</sup> ARTETXE, J. *Elcano*. Espasa-Calpe, S.A. argit. Colección Austral, 1504. Madril, 1972. (38. or.).

